



Japoniako katastrofe nuklearra

# Eta orain zer!



**Euskarazko hedabide ez publikoak**

Instituzioen aitormena bai, baina konpromisorik ez

- **Brian Currin Larrun-en** Hegoafrikako eta Ipar Irlandako ikasgaiak Euskal Herriarentzat
- **Roberto Gonzalez de Viñaspre**, filologoa: «Trebiñun euskara susperraldian dago»
- **Kantonamenduetako bozak** Paueko Kontseilu Nagusia ezkerreko aldatzeko zorian
- **Libiako eraso** Zibilen aitzakian, petrolio berriz helburu





# Bazen behin...

Mahai-jolasa

## 4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak  
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

# bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61  
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz  
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**





Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera»



**gizarte  
kutxa**  
zugandik zuzana



• **NON ZER** •

2011ko martxoaren 27a, 2.270. zenbakia

## Deabruaren abokatua

- **Africa Baeta:** «Pasioa eta ilusioa galtzen dituen kazetaria hilda dago». SUSTRAI COLINA / 4

## Asteko gaia

- **Euskarazko hedabide ez publikoak.** Babesa behar duen sektore estrategikoa. MIKEL GARCIA / 5

## Pertsonaia

- **Pilar Lopez:** «Gizarte zibilak asmatu duenak gizarte zibilaren eskuetan iraun behar du». MIEL A. ELUSTONDO / 10

## Gaiak

- **Maia kultura bizirik.** JOANES ETXEBARRIA / 15

## Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Gaurkotasuna. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Atzo arte isil-isilik eta orain gezurretan.** JOXERRA AIZPURUA / 21
- **Azala eta mamia.** KOLDO ALDALUR / 22
- **Txandan** Ideologi(k)a. JOXERRA GARZIA / 22
- **Fukushima.** IÑAKI BARCENA / 23
- **Bertso berriak** Bertso egin ezinari jarriak. JOANES ETXEBARRIA / 24

## Erdiko kaiera

- **Etxepare Institutua.** Mundura nola jalgi. GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 29
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** MIKEL GARCIA / 33
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

## Termometroa

- **Roberto Gonzalez de Viñaspre, trebiñuar filologo eta historialaria:** «Kontua ez da euskaldun izan nahi dugun, izan bagara». MIEL A. ELUSTONDO / 37
- **Kantonamenduetako bozak.** Paueko Kontseilu Nagusia ezkerrean aldatzeko zorian. MIKEL ASURMENDI / 41
- **Net Hurbil** Energia atomikoak Japonia bigarren bezala hondoratu du. PELLO ZUBIRIA / 43
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 48

## Azkena

- **Udaberririk ez.** KIKE DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÁ / 50



# *“Pasioa eta ilusioa galtzen dituen kazetaria hilda dago”*

**Africa Baeta | Bruce  
Springsteen**en zale itsua

«...zintzoa banaiz nik ez dakit zer eskatzen  
duen herriak, notiziak ala berriak»

**SUSTRAI COLINA**

Argazkia: Iñigo Azkona

## **Esadazu zu ere bokaziozko kazetaria zarela.**

Kazetaritza ez da lanbide bat, bokazio bat baizik. Sortuz geroztik hil arte zainetan darazazu. Ez duzu usteko lantokiko atea zeharkatzean kazetari izateari uzten diodanik, ala?

## **Ez esan 24 orduko albiste-kate horietako bat zarenik!**

Zure buruarekiko zorrozetasun handiz eta diskrezio handiagoz egin beharreko inurri lana da kazetaritza. Egunero daukazu azterketa bat zain eta sinesgarritasuna azterketaz azterketa irabazten da.

## **Politikarien erakusleihoa izateari azterketa deitzea ere...**

Kazetaritza eta politika eskutik helduta doaz. Politikariak hedabidea behar du, eta batzuetan, hedabideok gehiegi luzatzen diegu eskua politikariei. Bekatua da, baina...

## **Estutu itzazue. Sartu eztena, akuilua... Ala zuek ere su-etenean?**

Hedabide guztien linea editorialetatik harago, kazetari bakoitzak ahal bezain objektiboa izateko borrokatu behar du. Ni apolitikoa naiz, ez dut sekula inoren alde egin, eta ez dut inoiz inoren presiorik jaso. Zergatik ikusten ditugu mamuak ez dauden tokian?

## **Mamuak aipatzean, audientziei buruz ari zara?**

Albistegiak ere audientzien gerra odoltsuaren menpe daude. Normala iruditzen zaizu Pique eta Shakiraren artekoa albistegi bateko titularra izatea?

## **Adierazpen askatasunaren etsairik zitalena langabezia zela irakurri nuenetik...**

Niretzat sekulako ikasgaia da bekadunekin lan egitea. Euren adrenalinak eta begiratu birjinak ez daukate preziorik. Zergatik ote daukate jende akomodatuak baino aukera gutxiago?

## **Sistemaren sustraiak oroitaraztea nahi?**

Sistemak sistema, pasioa eta ilusioa galtzen dituen kazetaria hilda dago.

## **Eta sabel-hiztunaren txotxongiloa dirudien albistegietako aurkezlea?**

*Bustoparlante*-tik ihesi nabil. Baleko aurkezle asko egonik, ez duzu uste gure nortasun eta mundu ikuskerak markatzen duela aldea? Bukatu dira albiste bat ongi irakurtzea komunikatzea baino gehiago baloratzen zen garaia!

## **Albistegiak iraultzan? Ez esan...**

Moldeak hausteko joera dator. Hurbiltasun nahiak eta entzulearengana zuzenean iristeko beharrak albistegiak eraldatu dituzte. Irudikatzen duzu mahairik gabeko informatibo bat?

## **Teleberria aurkezten erretiratuko bazina hautsi-ko zenituzke moldeak!**

Zorro txikiarekin bidaiatzen ikasi dut. Gaur gaurkoa egiten saiatzen naiz, bihar gertatu litekeena bihar izango dela pentsatuta. Zaplaztekoak hartuta etxera negarrez joan naizenetan, beti itzuli naiz nire printzipioak defendatzeko grina indartsuagoarekin. ■

# Euskarazko hedabide ez publikoak

## Babesa behar duen sektore estrategikoa

Komunikazioa funtsezkoa da, euskaldunok ere inguratzen gaituen errealitatea eta gure mundu ikuskera isla dezagun. Zeregin horretan premiazkoak dira euskarazko hedabide ez publikoak eta hala aitortzen dute, ozenki, erakunde publikoek ere. Ordea, ematen dieten sostengua ez da aldarri horren adierazgarri.

MIKEL GARCIA



Euskarazko hedabide ez publikoek prentsaurrekoa egin zuten otsailean, administrazioen konpromiso handiagoa eskatzeko. Eskaerarekin bat egin dutenak: *Berria*, *Hitza* taldea, *Nora*, *Irria*, *Bidasoa Media*, *Antxeta*, *Pausuirratia*, *ZuZeu*, *kazeta.info*, *Aiurri*, *ARGIA*, *Irulegiko Irratia*, *Gure Irratia*, *Xiberoko Botza*, *Hala Bedi*, *Info7*, *Koska*, *Ukberri.net*, *Jakin*, *Herria*, *Galtzaundi*, *Euskara Taldea*, *Aizu!*, *Noaua!*, *Pil-pilean*, *Elhuyar*, *Uztarria* komunikazio taldea, *Berton*, *Prest!*, *Hernaniko Kronika*, *Gaztezulo*, *Mailope*, *Esan-Erran*, *Pulunpe*, *Txintxarri*, *Guaixe*, *Aldiri*, *Uztaro*, *Bertsolari*, *Entzun!*, *Hik Hasi*, *UK*, *Xorroxin*, *Nontzeberri*, *Ttipi-Ttapa*, *Goiena*, *Karkara* taldea, *Sustatu*, *Zuhatza*, *Bilbo Hiria*, *Gazteberri*, *±18*, ... *eta kitto!*, *Bizkaie!*, *Anboto*, *Gaur8*, *Zazpi Haizetara*, *Baleike*, *Goierri*, *28 kanala*, *Erlo*, *Oizmendi*, *Xaloe*, *Barren*, *Eizie*, *Beleixe*, *Drogeteniturrri*, *Aikor!*, *Aiaraldea*, *Txolarre*, *Dantzán*, *Hamaika Telebista*, *Topagunea*, *Begitu*, *The Balde*, *Euskal Irratiak*, *Kanaldude*.

“HIZTUN KOMUNITATEAK bere burua euskaraz islatua ikusteko eskubideaz ari gara, beharraz, nahiaz. Edozelako gizarte modernoaren orainean, edozein kulturaren geroan, giltzarri da hedabideen zeregina”, dio euskarazko ia 100 hedabide ez publiko sinaturiko editorial bateratuak, iragan otsailean argitaratua. Azken 30 urteotako ibilbide oparoari esker, kontsumitzaileen eskubidea bermatzeko

lanean diharduen sektore garrantzitsua bihurtu da euskarazko hedabide ez publikoena: 100dik gora komunikabide dira (prentsa, irratia, telebista eta Internet kontuan hartuta), 620 langile baino gehiago, eta guztien artean 27 milioi eurotik gorako aurrekontua mugitzen dute urtean. 7 milioi euro inguru sortu eta ordaintzen dituzte zuzenean gizarte segurantzaren eta zergen bidez.





Ttipi-TTAPA TELEBISTA

Audientziari dagokionez, merkatu potentzial indartsua erakartzen dute, CIES ikerketa zentroak 2007an egindako azterketaren arabera 450.000 pertsonen kontsumitzen baitutuzte noizbait euskarazko hedabideak; alegia, euskaldunen %57ak. Zehazkiago, euskal hedabideen kontsumitzaile kopurua ondorengoa litzateke: irratia eta telebista guztira 342.000 ikus-entzule dituzte, eta argitalpenek eta eguneroko prentsak, 407.000. Horrek esan nahi du, aintzat hartuta EITB irati eta telebisten zakuan sartuko genukeela, hedabide publikoek baino kontsumitzaile gehiago dituztela ez publikoek. Are gehiago, CIESeko inkestak kontsumitzaileen balorazioa ere jasotzen du: komunikabide ez publikoen kasuan, “betetze-maila altua” (*Berria*) eta “maila bikaina” (euskarazko aldizkariak) eman diete irakurleek; medio publikoen kasuan, “hobetu beharreko alderdia” (Euskadi Gaztea), “neurritzko betetze-maila” (Euskadi Irratia) eta “maila bikaina” (ETB1) izan dira jasotako balorazioak —ikus azken orrialdeko datu bilketa—. Horren aurrean, Jaurlearitzak bere txostenean ateratzen duen ondorioa da komunikabideak euskaraz bakarrik jarraitzen dituztenek ez dutela egiten atxikimendu afektiboagatik soilik —“euskararen aldeko militantziak hizkuntza hori erabiltzen duten komunikabideetara lotzen nau”—, baizik komunikabideei buruzko balorazio positiboa egiten dutelako.

Baina hedabide ez publikoen kontsumoa eta balorazioa positiboa izan arren, administrazioaren sostengu ekonomikoa ez da datuek

**Geu Gasteiz, Maxizatzen eta Txaparro aldizkariak eta Ttipi-Ttapa telebista itxi dituzte krisia dela-eta. Irudian, Ttipi-Ttapa telebistarako Abel Barriola elkarriketatzen.**

**San Mames Barriarako 112 milioi euro jarriko ditu administrazioak, AHTrako mila milioi 2012-2013an, eta Zubietan ezarri nahi duten erraustegiaren gastu publikoa 500 milioira iritsi daiteke**

adierazten duten proportzioan bideratzen, inondik inora. Aurten, guztira 7.500.000 euroko diru-laguntza jaso dute hedabide ez publikoek, eta EITBk bakarrik 173 milioi euro lortu ditu Jaurlearitzaren bidez. EITBk 900 langile ditu, eta beste 600 ingururi ematen omen die lana zeharka —erdarazko eta euskarazko hedabideetan—. Adibide zehatzagoak jartzearen, ETB1eko *Arratsaldero* saioak (19 lagunekoa lan taldeak osatua) 11.000 euroko aurrekontua du programa bakoitzeko, eta irailtik abendura arteko aurrekontua 728.000 eurokoa da. Duela gutxira arte ETB2n eman duten *Aspaldiko* saioak berriz (24 lagunekoa lan taldeak osatua), 15.500 euroko kostua zuen programa bakoitzeko eta irailtik abendura arteko aurrekontua 728.000 eurokoa izan zen.

Eraginkortasunari begira, medio publiko eta ez publikoen arteko desorekaz harago, inbertsio publikoaren banaketak ertz gehiago ditu.

#### Laguntzeko sosik ez?

Euskarak arreta berezia merezi duela eta berau sustatzeko eta zabaltzeko hedabideen zeregina funtsezkoa dela. Horra erakunde publikoek eta alderdi politiko gehienek behin eta berriz egindako deia. Ekarpen handia aitortzen zaie hedabideei, euskararen sustapenean duten garrantzia azpimarratzen da, baina dituzten beharretatik oso behera egon dira beti laguntzak, komunikabide ez publikoen artean bederen —zer esanik ez Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian—. Gaur egun, hainbat instituziotan gutxitu egin dira lagun-

tzak, krisiaren aitzakian. Finean, ez da sektore estrategikotzat hartzen, instituzioek benetan sektore estrategiko iritzi dituztenak laguntzeko baliabideak handitu egin baitira, oro har. Hala argudiatzen du hedabideek kaleraturiko editorialak: “Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiratu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak”.

Ezagunak dira bankuak salbatzeko ahalegin ekonomikoak edota automobilgintza indartzeko emandako pizgarri eta *renove* planak. Zentzu horretan, interesgarria da Frantziako Gobernuak martxan jarritako egitasmoa: 59 agerkariaren zazpi hilabeteko 210.000 harpidetza baino gehiago oparituiko ditu 18 eta 24 urteko gazteen artean. Zergatik ez bultzatu gurean horrelako ereduak kontsumoa suspertzeko?

Aldiz, bestelako jomuga dute inbertsio publikoek. San Mames Barria estadiorako, adibidez, 112 milioi euro jarriko ditu administrazio publikoak eta beste 50 BBK aurrezki kutxak. Realari ere 4,5 milioi euro aurreikusitzaion Gipuzkoako Diputazioaren 2007-2011 gestio planean, 1,5 milioi 2010eko aurrekontutik eta 1,2 milioi publizitate instituzionalen, “euskara, gizarte balioak, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren irudia sustatzeko”. Zubietan ezarri nahi duten erraustegiaren gastu publikoa 580 milioi euroa ere iritsi daiteke, eta euskal Y tren proiektuaren kilometro bakar batek, erakunde publikoetatik euskarazko hedabide ez publiko guztietara lau urtetan bideratzen dena balio du –2012-2013 urteetan, AHTra mila milioi euro bideratu beharko dituztela aurreikusten da–. Shangaiko Erakusketa Unibertsaleko Euskadiren Astean Jaurlaritzak antolatutako ekitaldiek ia 973.000 euro kostatu zaizkie EAEko biztanleei. Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresen lehiakortasuna sendotzeko 2010ean zuzendu dituen 10 milioiak dozenaka enpresen artean banatu dira (Arizaga, Bastarrika y CIA SA, 300.000 euro; Bellota Herramientas SA, 300.000 euro; Goizper S. Coop. 198.000 euro...), baina ez dago euskarazko hedabiderik edo komunikazio enpresarik horien artean. Aurtengo inbertsioetan berriz, Eusko Jaurlaritzak 7 milioi aurreikusi

ditu kulturarako, eta 21,2 etxebizitza arlorako, 4 berrikuntza administratiborako eta 59 ikerketa eta garapenerako, besteak beste. Adibide bakan batzuk baino ez dira horiek guztiak.

### Publizitatea euskarri

Euskarazko hedabide ez publikoen beste kritika bat da erakundeek ez dutela behar beste publizitaterik egiten euskarazko hedabideetan. Publizitate instituzionalak dirutza handia mugitzen du eta babes ekonomikoa da, baina erdarazko medioak dira etekina ateratzen diotenak, horietan jartzen baitu administrazioak publizitatea, euskaldunengana iristeko euskarazko hedabideek duten indarra kon-

tuan hartu gabe. Euskarazko komunikabide ez publikoetan, nagusiki euskararekin zerikusia duten sailek baino ez dute jartzen publizitatea oro har. Hala, euskaldunok publizitatea –orokorrean, ez soilik euskarako gaiei loturikoa– euskaraz jasotzeko eskubidea ez da bermatzen, eta ez da kontuan hartzen euskararekiko diskriminazio

positiboa. Are gehiago, bere zentzu praktikoa ere ez da baliatzen, arestian aipatu moduan 450.000 hartzaile baitituzte medio horiek.

Iaz, Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatu zioten Diputazioari publizitatearen %15 euskarazko hedabideetan jartzea, baina erabakiak ez du jarraipenik izan, komunikabide bakar edo bakar batzuetara baino ez da zuzendu, edota sail arduradunaren irizpideen menpe geratu da azkenean. Ondorioz, euskarazko hedabide ez publikoek aldarrikatu dute, errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta, instituzio publiko guztiek legez euren publizitatearen %25 euskarazko hedabideen artean banatzea.

Testuinguru honetan, ezin ahaztu krisia. Gainbehera ekonomikoak gogor jo du denean, baita komunikazioaren sektorean ere. Horri gehitu behar diogu hedabideen krisia, Internetera eta teknologia berrietara egokitzeko inbertsio beharra. Adibide ugari ditugu nazioartean: Sun-Times taldearen porrot ekonomikoa Erresuma Batuan, *The New York Times*-en berregituratzea eta *The Washington Post*, *Boston Globe* edota *Baltimore Sun* egunkariaren kaleratze –eta bulego ixte– ugariak AEBetan, Prisa taldearen zorrek behartuta Localia TV eta CNN+ telebista kateen ixtea Espainian... Gurean ere, nabaria da publizitatean eta salmentetan krisiak izan duen eragina, eta ondorioak jasaten ari dira euskarazko medioak. Horren isla dira *Gen Gasteiz*, *Maxixatz* eta *Txaparro* aldizkariaren eta Tipi Ttapa telebistaren itxiera, *Mugalari* gehigarriaren paperezko edizioaren amaiera, *Berria* eta

**Errealitate soziolinguistikoa  
aintzat hartuta, instituzio publiko  
guztiek legez euren  
publizitatearen %25 euskarazko  
hedabideen artean banatzea  
aldarrikatu dute**

## Teknologia berriak eta bakea, balia dezagun unea

Euskarazko hedabide ez publikoek inoiz egin dugun ahalegin bateratu esanguratsuenaren aurrean gaude. Eki-menean bildutakook —ia ehun hedabide— bagara nor, bai kopurutan (audientzia, langile kopurua...) bai sinbolikoki. Eta aintzat hartzeko moduko oihua luzatu dugu. Egoera larriak akuilatutako bilgunea da, eskaera xume, logiko eta zentzuzkoak dituen. Martxoan bukatu nahi da herri erakunde eta alderdiekin egiten ari garen elkar-rizketa erronda. Ondoren, euskal administrazioek sektoreari nola erantzuten dioten ikusi beharko da.

Dagoeneko Gipuzkoako Diputazioak agertu du irten-bide partekatutak bilatzeko borondatea. EAEn, esaterako, HAKOBaren (Eusko Jaurilaritza, diputazioak eta udalak) baitan edo honen gerizpean antola daiteke gaiari adarretatik helduko dion lan taldea. Diru-laguntza

publikoak eta publizitate instituzionalean daude une honetako erronka zehatzak. Hauek bideratuz gero, aurrera begira ere seguruenik izango dugu zertaz hitz egin, bai hedabideon artean bai administrazioekin. Besteak beste, sektoreak bere burua antolatzeko urratsak eman beharko ditu. Baina denbora denborari.

Euskarazko hedabideok azken hiru hamarkadetan erraldoien urratsak eman ditugu. Ez dezagun ahalegin hori urtzen utzi. Alderantziz, Internetek eta teknologia berriek etorkizunari inoizko zukurik goxoen ateratzeko aukeran jartzen gaituzte. Gure herrian zabaltzen ari den egoera berriak ere bai. Balia dezagun unea.

*Xabier Letona*

Hitzen berregituratzea, *Nabarra* agerkariaren kudeaketa aldaketa eta *Otamotz* hilabetekariaren berregituratzea.

Mota horretako adibide gehiago egon ez dadin, eta komunikazioaren ibilbidean balia-bide nahikoarekin hobetzen jarraitzeko, euskarazko hedabide ez publikoek duten sostengu premia agerikoa da. Hala adierazi diete instituzio publikoei.

### Hedabideen kanpaina

2010eko uztailan Gipuzkoako Diputazioak euskarazko zenbait hedabide bildu zituen sektoreak bizi zuen egoerari buruzko hausnarketa eragin eta bere burua nola antola zezakeen ikusteko. Ekimen hark balio izan zuen sektoreak bizi zuen une larria mahaigaineratu eta hainbat gogoeta partekatzeko. Ekimenak ez du segidarik izan formatu hartan.

Baina bilera horietan bildutako zenbait hedabidek, beste karril batean bildu eta sektoreak bizi zuen egoeraz hausnartu beharra adostu zuten. ARGIA, *Berria*, Hamaika Telebista eta Topagunea bildu ziren lehenbiziko hartan eta 2010eko azaroaren 30erako Euskal Herriko hedabide ez publikoak biltzeko deialdia egin zuten. Martin Ugalde parkera bildu ziren dozena bat medio eta sektoreak bizi zuen egoeraz kanpaina publikoari ekitea erabaki zuten. Ardatza honakoa zen: sektoreak badu zer hausnarturik aurrera egiteko, baina une honetako lehentasuna larrialdi egoerari erantzutea da eta horretarako, gaur egun funtsezkoak diren diru-laguntza eta publizitate publikoetan aurrerapausoak ematea ezin bestekoa da.

**Eskakizun guztiez jarduteko, hedabideen eta erakundeen arteko mahaia eratzea eskaini du sektoreak. Ikusi beharko da erakundeetako ordezkariak zer erantzuten duten**

Sektoreko atxikimendu ia erabatekoa bildu ostean, otsailaren 1ean egindako editorial bateratuak —“Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua”— abiarazi zuen kanpaina. Otsailaren 15ean 50etik gora hedabidek agerraldi publikoa egin zuten Donostian, besteak beste euskarazko hedabide ez publikoen tamaina esanguratsuari buruzko datuak eskaintzeko.

Une honetan, euskal gizarteko alderdi eta erakunde publikoekin ari dira biltzen hedabideen ordezkariak (ARGIA, *Berria*, Bidasoa Media, Goiena eta Topagunea). Sektorearen egoeraren berri ematen diete, baita aurrera begira beharrezko ikusten dituzten diru-

laguntza eta eskakizun zehatzak ere. Badira zenbaitzuk, baina hala laburbildu daitezke:

Lurraldez lurralde sektoreko egoera oso desberdina bada ere, oro har, diru-laguntzen %25eko igoera eskatzen da, eta berauek jasotzeko deialdi publikoen sistematik hitzarmen sistemara igarotzea.

Publizitatearen eremuan, instituzioek publizitate kanpainetan gastatzen duten %25 euskarazko hedabideetara bideratzea eskatzen da. Eskaria ez da hutsaren gainean eraikia, aspaldiko aldarrikapena da, baina 2010eko udan Gipuzkoako Batzar Nagusiek erabakitakoak hauspotu du berriz.

Horrez gain, Intertek eta teknologia berrietara egokitzeko ahalegin handia egin behar dute hedabideek eta —beste sektore batzuetan egiten den bezala— horretarako diru-laguntza bereziak eskatu dituzte.

Horretaz guztiaz jarduteko, hedabideen eta erakundeen arteko mahaia eratzea eskaini du sektoreak, eta ikusi beharko da erakundeetako ordezkariak zer erantzuten duten. ■




## Euskarazko hedabide ez publikoak datutan

### SEKTOREA

- ▶ 100dik gora hedabide (EHUko ikerketa baten arabera 108)
- ▶ 620tik gora langile
- ▶ 27 milioi eurotik gorako aurrekontua
- ▶ 7 milioi euroko ekarpena gizarteari (BEZ, PFEZ eta Gizarte Segurantzza bidez)
- ▶ 7.500.000 euro diru-laguntza publikoetan


### KONTSUMITZAILE KOPURUA

|                         |                |
|-------------------------|----------------|
| Argitalpenak            | 284.000        |
| Irratia                 | 173.000        |
| Telebista               | 164.000        |
| Eguneroko prentsa       | 123.000        |
| Internet                | 23.000         |
| <b>Irismena guztira</b> | <b>450.000</b> |
| <b>Euskaldunak</b>      | <b>780.000</b> |




Iturria: CIES (2007)

### EUSKARAZKO MEDIOEN KONTSUMITZAILEEN BALORAZIOA (%)



Iturria: CIES (2007)

### EUSKAL EGUNKARIAK EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK



Iturria: Ikerfel (2007)

## Pilar Lopez

# «Gizarte zibilak asmatu duenak gizarte zibilaren eskuetan iraun behar du»

1976, Gasteiz, Abetxuko langile auzo peto-petoa, etorkinentzat berariaz egina. Inguruko lantegiak beste perspektibarik ez zuten gaztetxoek antzerki lana erakutsi zuten behin, eta gustatu, eta behin eta berriz eta askotan erakutsi zuten gero, harik eta antzerkia egin zuten arte bizibide. Antzerki lana Gasteizko gizarte zibilaren ekimen bihurtua dute hogeita hamar urte baino gehiago igaro direnean.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

### Zenbat urte antzerkigintzan?

Konpainia 1976an sortu zen, 2011n gaude, beraz, 35 urte konpainian. Lehen biak izan ezik, gainerakoak, profesional. Bizialdi osoa, esaterako, oso gazterik hasi ginen-eta. Nik 14 urte nituen, atera kontuak. Gure auzoan, Abetxukon, bazen bat, Ubaldo Fernandez, istorio bat idazten hasi zena: *Eterno paraíso sin igual* (Parerik gabeko paradisu betierekoa) jarri zion izena, Manolo Escobarren kantu baten lelo ezaguna baliaturik. Istorioak langile-auzo batean –Abetxukon bertan, esaterako– gertatzen zena azaldu nahi zuen, 14 urteko neska-mutilek geroa eraikitzeke zituzten zailtasunak erakutsi, garai latzak baitziren, eta gaztetxo haiek orduko OHO edo derrigorrezko irakaskuntza bukatu eta lanean hasi beharra zeukaten. Antzezlan hark, berriz, bestelako biderik ere bazegoela esan nahi zuen. Ez dira Moisesen garaiko kontuak, guk bizi izan ditugunak baizik. Sasoi hartan, auzoan, familia batzuk seme-alabek ikas zezaten ahaleginak egiten ari ziren, beste batzuek, aldiz, 14 urteko gazteen lan-saria behar zuten aurrera egiteko. Eta, horretan, antzerki taldea sortu zen, auzoko antzerkia. Izen horixe du, gainera, auzokoa. Bada autore bat, Jeronimo Lopez Mozo, antzerki mota horretaz idatzi zuena, eta halaxe izendatu zuen: “Auzoetako antzerkia eta nekazarien antzerkia”, eta Abetxuko esperientzia hura aipatzen du: herri-

antzerkitzat definitzen du, antzerki sozialtzat, lekuan lekuko bizimoduaren ispilu izan nahi duena, lekuko jendearen baitako kontzientziak astindu. Auzo batetik bestera ibili ginen Gasteizen. Pilarrera, Txagorritxura eta gainerako elizetara.

### Zein bide egin zenuen harrezkero, zein bide egin zuen antzerki talde hark?

Batera datoz biak. 18 urte bete nituenean, eta hor nonbait gainerako taldekideek, hiru-lau urteko eskarmentua genuen, auzoko antzerkia garatuta zegoen, hainbat sari jasoa zegoen han eta hemen, eta, orduan, taldeko partaideok antzerkia lanbidetzat hartzea erabaki genuen. Ozarkeria galanta, ez baikenuen formaziorik, ez erreferenterik, ez deus, *Denok* izan ezik, Gasteizko talde profesional sortu berria. Bizi honetan zer egin erabaki behar genuen garaia iritsi zitzaigun, eta antzerkia egin nahi genuela erabaki genuen. Zoria lagun izan genuen, eskolan, gizarte langileak eta irakasleak bertako neska-mutilentzako aisialdi ekintzak prestatzen hasi baitziren, eta, besteak beste, adierazteko zailtasunak zituzten hurrei adierazpide egokiak bilatzeko saioak egiten. Eta adierazpen tailerra egitea proposatu ziguten, haurrentzat, Abetxukon. Adinen arabera, txikienetik handienera, hiru talde osatu genituen. Bada, garai hark burdinetan bezala markatu gintuen, antzerkian





## Nortasun agiria

Pilar Lopez Lopez (Burgos, 1962), Bilbon zen 4 urte zituela, eta 6 urterekin heldu zen familia Gasteizko Abetxukora. Paraiso antzerki taldearen sortzaileetakoa, haur eta gazteen-tzako antzerki lanak sortzeko lanean ari da, 14 urte zituela agertokira igo zenetik. Dibulgazio lan beldurgarria egin du Gasteiz inguruan, eta hainbat erakunderen elkarlana ere sustatu. Arabako hiriburuko Bernat Etxepare antzokiko *Antzerkia Eskolan* programazioaren arduradun da, eta Bilbo-ko Mitusu aretokoak. Emanaldiez gain, ikuslearen formazioa du helburu, eta horixe gogoan hartuta ari da beti lanean. Haurrei begira, Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiko *Haurtxoak* proiektuaz arduratzen da, baita Txoroleku izeneko aretoaz ere. Teatro Paraiso antzerki taldearen zuzendari ez ezik, Kulturaren Euskal Kontseiluko kide, TE Veo elkartearen presidentea, INAEM Espainiako Arte Eszenikoen eta Musi-karen Institutuko Antzerki Kontseiluko kidea eta Small Size Europar Sareko kide ere bada Pilar Lopez.





modu profesionalean lan egiteko, haur eta gazteentzako antzerkigintzan. Helduentzako lan egitea erabaki genezakeen, baina haurrentzako hartu genuen eta aurrera. Batzuetan arte minorra dela ematen du, besterik egiteko gai ez direnek egiten dutena, baina ez da horrela. Geure gogoz hartu genuen erabakia, eta ikasten hasi ginen, aktore, interprete, zuzendari... ez ezik, baita antzerki pedagogiaren arloan geure buruak prestatzen ere.

## Irakaslea aktore

“Irakaslea, gelan, aktore da, hein batean, bederen. Neurologiaren aurkikuntza berrien arabera, emoziorik gabe ez dago ikasketarik. Ikasketaren profesionalak, berriz, irakasleak dira, eta, beraz, emozio sortzaileak dira. Eta, zer gara, bada, antzerkia egiten dugunok, emozio sortzaileak ez eta? Elkarren antz handia dugu, sinetsi nahi duguna baino handiagoa. Oinarritzakoa da emozioak sortzea, horretan ahalegintzen gara aktore-aktoreak, batzuetan lortzen dugu, besteetan ez, baina horixe da gure borroka, haurren, gazteen eta familien emozioak piztea”.

## Nola?

Bi irakasle handi izan genituen. Bata, antzerki irakaslea, Migel Garrido –hil zen–, Alemaniatik Gasteiza *Denok*-ekin lan egitera etorri zena. Hark markatu du gure lana, clown-aren bidean, eta zehaztasunean. Zehaztasunik gabe ez ginatekeen honaino helduko: ahaleginik eta lanik gabe ez dago ezer, ez antzerkian ez beste inon. Irakasle hari ikasita, emanaldiak egiten ari ez garenean ere entseguak egiten ari gara, ikuskaria materia bizia baita, mugitzen da, itxuraldatzen. Haurra zaintzen den moduan, etengabeko zaintzak behar ditu ikuskariak. Migel Garrido maisuarengandik jasotako ondarea dugu hori. Beste irakasle bat ere izan genuen, kanadarra, Gisele Barret gaur egun Pariseko Sorbonan da irakasle. Adierazpenaren pedagogia lantzen zuen, eta horrek ere zeharo markatu gintuen bidean. Hasieran denok egiten genuen dena, baina 1983an, batzuek interpretazioaren aldetik gehiago sakondu nahi zutela erabaki zuten, eta beste batzuek, aldiz, pedagogiaren alderdia.

## Bereizi egin zen konpainia?

Ez, taldea bereizi gabe, ontzat hartu genuen nork bere bidean sakontzea, bere nahiaren arabera. Orduantxe utzi nion nik aktorea lanari, agertokira igotzeari. Jendeak eta agertokiak ez duela askorik galtzen pentsatu nuen, jende gaituagoa bazegoela. Aldiz, adierazpenaren pedagogian aurrera egin nezakeela sentitu nuen, alde horretatik egin nezakeela ekarria, eskolaren eta antzerkiaren arteko harremanak landuz, eta familiekin ere lanean.

## Hogeita hamar urte hauetan, zein gorabehera nagusi duzu akorduan?

1993a oso urte latza izan zen, esaterako. Taldean ari zen zenbait lagunek hura uztea erabaki zuten, bestelako proiektu batzuk lantzeko asmotan. Ekonomia krisia da oraingoa, eta ekonomia krisia zen ordukoa ere, oso garai latza. Bartzelonako olinpiadak igarota, Sevillako Expo-a ere igarota... kulturaren dirua gertakari handietara sartu zen, eta pot egin genuen gero. Hutsaren garaia izan zen. Hondoa jo genuen. Krisiak, ohi duenez, hazten lagundu zigun, jendearekiko harremanetan oinarritutako lanak egiten hastea erabaki genuen, Gasteizko Udalarekin hitz egingez, eskari soil baten inguruan: “Ez dugu dirurik nahi, ez dugu ezer nahi, ez bada Bernat Etxepare antzokia irekitzen uztea, irakasleekin lan egiten uztea, eta hirian dagoen eskariari erantzutea, uste baitugu eskaria badagoela, baina gisako eskaintzarik ez. Esperientzia egiten uzteko eskatzen dizuegu, ez besterik”. Eta Udalak onartu, eta egin genuen lehen esperientzia, eta sekulako arrakasta. Handik atze-



ra, proiektua garatzeko gai ikusi genuen geure burua, eta Udalarekiko harreman etengabea sartu ginen. Eta ez da gehiegikeria esatea Espainiako Estatuan parekotasunik ez duela.

### Antzerki programazioaz ari zara...

Programazioa baino areago da, filosofia. Ez da emanaldi programazio hutsa. Programazioaren inguruko jarduera mordoa egiten dugu, "Ikusle izateko artea", besteak beste. Ikuslearen formazioa sakontzea du asmo, tarte eder bat igarotzea ez ezik, arrastoa utz dezan nahi dugu, artea gauza garrantzizkoa dela uste dugulako. Maiz, Gasteizko ereduari buruz hitz egiteko deitzen didate handik eta hemendik. Bai, leku askotan hots egiten diete erakundeek eragile pribatuei, halako eta halako emanaldi eta abarrak antolatzeke, baina gutxitan gertatzen da eragile publikoak eta pribatuak bat egitea helburu komun baten faboretan. Gure konpainia enpresa pribatua da, horretara behartu gaituzte –Frantzia bagina, kultur elkartea ginateke, seguruenera–, baina zerbitzu publikoa eskaintzen dugu. Lan publikoa egiten dugu, haurrek arte eszenikoekin harremana izan dezatela delako gure helburua. Herri erakundeei dagokie helburu hori betetzea, haurren eskubidea delako, elkarbizitza markoa zedarritzen duten dokumentuetan –izan konstituzioak, izan gainerako legeak– horrela jasota ageri delako. Udalaren ardura da, besteak beste, haurrek irakurtzen eta idazten ikas dezaten, arte eta kulturaren atea jotzeko eskubidea gauza dezaten. Gure ardura da, berriz, erakundeei kolaboratzea, helburu horiek bete daitezen. Horretan ari gara, Udalaren eta gure konpainiaren arteko harreman sendoarekin bitartez: eskola-programazioa egiten dugu Bernat Etxepare antzokian, eta Antzoki Zaharrean egiten den familia-antzerkiarekin konbinatzen dugu; gainera, tamaina txikiko antzerkia ere egiten dugu, eta txikientzako beste espazio bat, Txoroleku izenekoa.

## Tesia

"Agertokiak ez du ezer galdu ni handik jaistearekin. Agertokira berriz igo, aktorea lanean, ez. Hala ere, igotzen naiz, ikusleei harrera egiteko, haiekin hitz egiteko, hau eta hura kontatu eta esplikatzeke. Gazteentzat egiten dut lan hori, bereziki, baina berdin haur eta familiekin. Beti esan ohi dut, hazten naizenean tesia egin nahiko nukeela, aztertuz zer gertatzen den ikusleak aretoan sartzen direnetik emanaldia hasten den artean, eta emanaldia bukatu eta irteten diren bitartean. Uste dut gauza garrantzizkoak gertatzen direla hor".

Honetaz Paraiso antzerki taldea arduratuko da; horretaz, Udaleko Kultur zinegotzia; hartaz, antzoki-sareko arduraduna... Nork lanaren bere partea egiten du haur nahiz gazteek eta arte eszenikoek bat egin dezaten. Binaka lan egite hau ez da erraza, gurean ez baita ohitura handirik, hemen pribatua pribatu da, eta publikoa publiko, eta, are, akordioak non oinarritu, tresna juridikoak ere ez dira bapobapoak, ez dugu tradizioz, zeren trantsizio-tik hona ez baita denbora handirik igaro oraindik.

### Nola asmatu zenuten bide hau egiten?

Profesional egitea erabaki genuenean ez zegoen Internetik. Egunkari eta aldizkariak genituen, eta posta, eta noiz edo noiz berriren bat jasotzen genuen handik edo hemendik, eta atzerrian zer edo zertan ari zirela jakiten genuen. Irekitze garaia zen, bestalde, eta kanpora joateko beharra sumatu genuen. Eta Bartzelonako Adierazpen Eskolara joan ginen, hantxe ikasi genuen, eta Frantzia eta bestetan ere gure moduko jendea zegoela jakin genuen, guk egin nahi genuena egiten ari zena, edo egiteko asmotan. Frantzia, helduentzako zentro dramatikoak ez ezik, haurrentzakoak ere baziren. Belgikan, aitortza handiko taldeak ari ziren lanean, emanaldiak eginez, eta gizarte lana ere bai, eskola eta auzoetara joanez eta abar. Italian, 70eko hamarkada amaierako hezkuntza mugimenduaren ondorioz antzerki iraultza bizi zuten... Munduan oso gauza garrantzizkoak egiten ari zirela iruditu zitzaigun, geuk ere egin beharrekoak. Bidea egiten erakutsi zigun horrek. Uste dut Ovidiok dioela: "Ezagutzen ez denik ez da nahi izaten". Guk, esperientziak ezagutu nahi izan genituen, ezagutu ere genituen, eta gure herrian, Gasteizen, erakusteko eta egiteko nahia izan genuen, bertako ezaugarrien arabera, leku guztiak baitira diferente. Bidean hasi ginen, eta Bernat Etxepare antzokia abiapuntu bikaina izan da, honaino



lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

## KRISIA LATZ

"Krisia?... Lanean ari gara, krisiak bazterrek latz astinduagatik ere. Banketxeek kredituak emateari utzi diote, berankortasuna eguneroko ogia da... eta, ataka honetan, gogor saiatzea besterik ez dago. Egoera oso da delikatuia –baita ikuspuntu etikotik begiratuta ere–, baina ez dugu atzera egingo. Zenbait talde desagertzeko arriskuan egon litezke, ez egitura handiena dutenak, ez txikiak ere, tarteko tamaina dutenak baizik, garatze sasoian harrapatu dituelako krisiak, ez aurrera ez atzera". Garai latzak, Dickens liburuaren izenarekin bat.



heltzeko ezinbestekoa. Eta, orain, beste aro batean gaude, Haur eta Gazteentzako Antzerki Berrikuntza Zentroa diseinatzeko ari baikara Gasteizen. Zabalganako Gizarte Etxearen ondoan eraikiko da, eta etorkizunerrantz proiektatuko du orain arte egin dugun lana. "Egin dugu", ez Udalak bakarrik, ez Paraiso antzerki taldeak bere gisa, irakasleek eta askotariko laguntzaileek eta denek batera baizik. Hiriak, gizarte zibilak eta erakundeek gauzatu dute proiektua, eta gure lana da hura zaintzea eta, hala badagokio, areagotzea.

Zaila behar du horrelako lan eta kolaborazioa...

Ez dakizu ondo! Kar, kar, kar... "Antzokia nahi dugu, eskari handia baitago!" esan

## Eskola vs. antzerkia

"Eskolak antzerkiaren errezeloak ohi ditu, eta antzerkiak eskolarenak. Badirudi ez direla ongi konpontzeko jaioak. Ez da Gasteizen kasua, erabateko konplizitatea dugu irakasleekin. Eskola antzerkiaren errezelotan bizi da, mundu anarkikoa, adierazpen estuaren, kodetuaren mundua delako, eta horrek irakasleak urduritzen ditu, nahitaez. Eta antzerkian lan egiten duen jendeak eskolaren errezeloak ditu, mundu kodifikatua iruditzen zaiolako, ez duelakoan gizakiaren adierazpena garatzen. Okerra da hori".

genuenetik, Udalaren sostengua izan genuen orain dela hogeita hamar urte! Era bateko eta besteko udalek bere egin dute proiektua, eta oraingo Udalak beste urrats bat egin du. Zaila da kolaborazioa, kultur arloko proiektuak gauzatzeko tresna juridikoak behar ditugulako. Eta errazagoa da tresna horiek futbol arlorako asmatzea, kulturarako baino. Orain-txe, egiten dugun galdera da: "Nola aitzinatu indarrean dugun antzerki ereduak krisi garai honetan, nola estutu ikuslearekiko harremana, entitate publikoen eta pribatuen arteko elkarlanaz?", ez baikara antagonista, bata bestearen osagarri baizik. Horixe dugu erronka, gizarte zibilaren eta erakundearen arteko elkar-lana josteko tresnak asmatzea. Hitzarmen eta akordioak egingo ez balira, Udala izango litzateke nagusi, eta haren morroi beste guztiok, hark ordaindu eta guk lana egin, ez litzateke besterik izango. Hori ez da bidea, gure ustez. Gizarte zibilak asmatu duena gizarte zibilaren eskuetan iraun behar du; Udalak egitura piramidala du eta ezin du leku guztietara heldu, eta ez du heldu behar ere, gizarte zibilaren proiektuak zaindu eta lagundu behar ditu, hiritarrei eskaini behar zaizkien zerbitzuak eskaini daitezkeen, beraren tresnen bidez, edo bestelako bitartez, baina gizarte zibilaren lanari uko egin gabe betiere. ■





• Atitlan •

# Maia kultura bizirik

JOANES ETXEBARRIA



## Sumendiz inguratutako lakua.


Itsasotik 2.000 bat metroko altueran, mendiz inguraturik –horietan hiru sumendi–, 220.000 bat pertsona bizi da Guatemalako Atitlan laku bazterrean. Inguru horretan lortutakotik bizi dira gehienbat, baina herri batzuetan turismoa bilakatu da ekonomiaaren ardatz.







Goian eta eskuineko argazkian, Santiago La Lagunako merkatuan.



## Turistak eta etorkinak.

Turista eta etorkin artean, azken urteetan Atitlanen ingeles asko entzuten da, eta bertako askok ere ikasi du gainera. Baina nabaritzen zaie ama hizkuntza ez dutela ez ingelesa, ezta gaztelania ere, maia hizkuntza baizik.

San Pedro La Lagunako merkatuan saltzaile.





## 22 hizkuntza.

Santiago La Laguna inguruan tzu'tujil hizkuntza da izen bereko komunitateak mintzatzen duena. Guatemala eta Txiapas artean, 22 hizkuntza hitz egiten dira. Jatorri bera omen dute guztiek, baina ezberdintzen joan dira, hizlari batzuen eta besteen artean ez ulertzeraino.

San Pedro La Lagunako merkatuan, janaria prestatzen.







Santiago eta San Pedro herrietatik antolatutako elkartasunari esker, Jaibalito herriko haurrei eskola materiala ematen.



Maia jantzi tradizionalak.

**Erlijio anitz.** Hizkuntzaz gain, jantziak ere komunitate bakoitzaren bereizgarri dira. Eta erlijioak ere bat baino gehiago dituzte. Nahiz eta katolikoak eta ebanjelistak herrietan integratuta dauden –Santiago bezalako herri txiki batean hamabost eliza daude–, ez dituzte maia kulturaren oinarriak ahanzi. Hala, Maximon izeneko dibinitatea gurtzen dute. ■

[argia.com](http://argia.com) Argazki sorta zabalagoarekin osatutako diaporama gure webgunean.



# GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Koldo Aldalur

KAZETARIA

## Azala eta mamia

**A**zalekoari mamiari baino garrantzi handiagoa ematen zaionean, erreka ondoko zuhaitzaren antza hartzen du askotan egoerak: kanpotik gogorra eta sasoikoa, baina barrutik usteltzen hasia.

Azala. Bilboko ezker hormako pilotaleku berria inauguratu berri dute Miribilla auzoan. Kanpotik nahiz barrutik beltza, dotorea. 3.000 lagunentzako toki a eserita, mugikortasun urrikoentzat moldatua, trigenerazio sistemaz berotu eta hoztuko dena. Trinke-tea ondoan, txukuna oso. Komunikabideek lana egiteko plaza aproposa. Euskal Herriko pilotaleku handiena Erreinu Zaharreko hiri-buruko berria amaitzen ez duten bitartean. Hogeita lau milioi eurotik gora behar izan dira *Euskadi* pilotalekuak ateak zabaltzeko. Bertan Bizkaiko Kirol Federazioak batuko dituen lokal sorta ere bada. Azken helburua profesional mailako partidak eta txapelketetako final handienak bertan jokatzea bada, Miribillako pilotaleku berriak “akats” txiki bat besterik ez du: ez dago kotxea uzteko ia lekurik.

Azken urteotan sarri ikusten ari gara erraztasun guztiak emanda ere oso zaila dela pilotazalea pilotalekuetara eramatea. Txapelketako partidetan hainbestean, baina gai-nontzekoetan pilotaleku askok izaten dute sarri itxura tristea, kantxan diren pilotariak goi mailakoak izan arren.



DANI BLANCO



Pilota eskolak  
gauzatzeko arazo  
dexente dago  
oraindik. Pilota  
ogibide izan  
dutenetatik gutxi  
dira, atzetik datozen  
gazteei ofizioa  
irakasteko behar  
adina denbora eta  
pazientzia dutenak



Bizkaia Bilbao Basket saskibaloitza taldeak ere Miribilla jokatzen du, eta zaleak, familia osoak sarri, biltzen dira partidak ikustera azken metro geltokitik, edo Mirafloresen kotxea utzita bizi-bizi joanda ere, ordu laurdenetik gora ibili behar badute ere. Pilotazalea, ordea, adinez eta izaeraz, ezberdina da eta erabat harrituko ninduke, esate baterako, Deportivon edo Astelenan biltzen direnak ahalegin horretan ikustek.

Mamia. Orea galtza zuriak janzen dituztenek osatzen dute. Pilota eskolak gauzatzeko arazo dexente dago oraindik. Pilota ogibide izan dutenetatik gutxi dira, atzetik datozen gazteei ofizioa irakasteko behar adina denbora eta, batik bat, pazientzia dutenak. Herri txikietan takean-takean sortzen dira pilotari berriak, baina herri handietan ez dago kimu berririk.

Pilotari izena ondo irabazia duten hainbatek debuta egin eta hilabete gutxira, sasoi eta joko bete-betean direla, kalera bota dituzte. Etorkizun izugarria dutenek eta izar dizdiratsuenek bakarrik eramaten dute jendea pilotalekuetara, eta multzo horretan ez dauden pilotariak ez omen dira komeni. Eta horrela beste hamaika kontu ilun.

*Euskadi* arbel beltzez egin dute. Pilotak bizi duen egoerari irtenbideren bat topatzeko lanean hasten ez bagara, gure kirolaren etorkizuna kolore bertsukoa izango da. ■

TXANDAN

Joxerra Garzia



Plurala barra-barra erabiltzea, nonahi, noiznahi eta edozertarako. Norbera plurala izango bada, den-dena pluralean deklinatu behar: hizkuntza, kultura, identitatea... Horra hor gutako batzuk aspaldion gobernatzen gaituztenek —eta gobernatzen gaituztenak gobernatzen dituztenek— demokrata-txartela emateko eskatzen digutena.

Jakina, gure gobernariak gure on-beharrez ari dira singularra debekatzen digutenean. Jator eta demokrata —demokrata jator—, nahi gaituztelako nahi gaituzte plural.

### Ideologi(k)a

Lau urteko ume batek ere aise ulertuko luke hori. Bada, ordea, xehetasun txiki txoro txatxu bat. Izan ere, garai batean sendagileekin eta apaizekin gertatzen omen zena gertatzen da orain gure gobernariekin: inori agindua ez dutela eurek betetzen. Eurak gudan kabitzea guretzat ona bada, zergatik ez da haientzat ona gu haien baitan aise eta eroso kabitzea? Zergatik kabitut behar du ikurrinak banderan, baina ez banderak ikurrinean? Zergatik *Naranjito* eta sekula ez *Sagar-txo*? Zergatik flamenkoa bai eta bertsolaritza ez?

Datorrela lau urteko ume hori, nik ez baitut ulertzen. ■



## Gaurkotasuna

**E**

zagutzen ez duzun gizaki bat itxuraz nolakoa den aztertzeko, oso beharrezkoa izan ohi da argazkiren

batean ikustea. Baina oraingo honetan, Uxueren bertakotzearekin alegia, horrelakorik jakiterik ez dut. Bere argazkian Uxue nolakoa den nire artikulu hau idatzi eta egun batzuetara jakingo baitut, gutxi gora-behera. Baina hori da gutxiena. Berak aurrenekoz gure artera idatzitakotik sumatu dezakedalako zerbait: bere akats eta bere balio guztietan ederra dela. Eta ez dut gizon bezala esaten, sail honetan ni neu gaur zaharrena izatera pasatzearen harroxxokeriaren izenean baizik. Uxue, Beñat, ikusten duzue-nez, langintza horretan ere hasi behar nuen noizbait, eta urtetako ahaleginaren ondorioz, unea iritsi zait, hala ematen du behintzat. Eta altxor hori oraindik ere aberasteko asmotan nagoela esan beharrik ez da. Esan bezala, nik ez dut goran, gure aldamenean jarriko diguten Uxueren argazki hori ikusi, baina irakurleen begiek ondo hartu eta ondo gordeko dutelakoan nago. Baina ez dut nik nire irudimenaz aterako haren fotografiaren gaia gaur agortu nahi. Beste zerbait esan beharra dut. Bere ttakuna idazteko, Uxuek, besteak beste, gaurkotasuna hartu zuen gai. Eta bere iritziaren berri azaltzeaz gainera, nire iritzia ere piztu zuela dudarik ez egin. Gaurkotasuna zer den edo zer izan daitekeen erantzuten zaila dela iruditzen zaio Uxueri, zentzu osoz. Ez zaio, ordea, berari bakarrik gertatzen. Gaurkotasunak bizi gaituen gizaldi guztien arazoa da hori. Eten egiten al du gaurkotasunak kate zaharra? Segidarik utzi gabe? Gaurkotasuna ez da amaitzen, amaitzen denean, gaurkotasun berria azalduko zaigulako, edo azaltzen ari zaigulako. Horrela,


CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

gaurkotasun zaharraren ilunabarra eta berriaren egunsentia batera ditugu. Gaurkotasun berria jaioko zaigu. Nolakoa izango den ez nuke esango, ordea. Gaur egun etorkizun handiena duten lanbideen artean egon arren, igarle izatea oso zaila baita. Eta horixe izango da gaurkotasunaren kezka larrienetako

bat: nondik datorren badakiela, baina ez nora doan. Horrexegatik, hain zuzen, gaurkotasun zaharra badihoakigula jakinaren gainean gare-lako hasten gara, dudarik gabe, gaurkotasun berri hau lantzen. Baina nire beldur bakarra hau da: joan aurretik, gaurkotasun horrek halako testigantza baliotsu eta oparoak utziko ote dizkigun. Aitona-amonak joan zorian daudenean ilobek haien oroipenak biltzen hasten garenean bezala, guk gure zaharren gaurkotasunarenak jaso eta gorde nahi ditugu, gu ez ezik, datorren gaurkotasun berria ere horrela aberastu egingo den uste osoan. Xabier Lete eta Gabriel Celaya poeten omenezko nazioarteko poesia sariketarako sortu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horretaz gain, Celaya jaio zeneko mendeurrena gogorarazteko, hari buruzko jardunaldiak egin dira martxoaren 14tik 21era bitarte, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Bien izen

horiek elkartzearekin, bi poeta horien gaurkotasuna jasotzearekin, Euskal Herriaren gaurkotasunari beste gaurkotasun bat eman zaio: ahaztu beharrean, oroitu, eta gaurkotasunaren kate luzeari bukaera eman beharrean, kate luze horren mutur berri bat jarri gure eskuetan. Horacio zaharrak esaten zuen zorionekoak direla haien izenak poetenekin nahasten diren herriak. Zaharrak berri-tuz, testigantza hori hitzen paperezko argazki iraunkorra da. Uxue eder bat, atzo eta gaur. ■



Nire beldur bakarra hau da: joan aurretik, gaurkotasun horrek halako testigantza baliotsu eta oparoak utziko ote dizkigun. Aitona-amonak joan zorian daudenean ilobek haien oroipenak biltzen hasten garenean bezala, guk gure zaharren gaurkotasunarenak jaso eta gorde nahi ditugu, gu ez ezik, datorren gaurkotasun berria ere horrela aberastu egingo den uste osoan



Joxerra Aizpurua

INDUSTRIA INGENIARIA

## Atzo arte isil-isilik eta orain gezurretan

**Z**entral nuklearren eraikitzearen aurkako mugimendu zabala, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan bizi izan genuen Euskal Herrian. Ez dakit gizartearen mobilizazioaren eraginez edota 80ko hamarkadan jasan genuen krisiaren eraginez, edo bien eraginez, baina egia da egun Euskal Herrian ez dagoela zentral nuklearrik; hurbil bai, hor baititugu Garoñakoa edota Akitaniako Le Blayais-ekoa eta Toulouse ondoko Golfech-ekoa, eta gainera, egun kontsumitzen dugun energia elektrikitik auskalo zenbatek duen jatorri nuklearra. Beraz, Euskal Herrian ez dago zentral nuklearrik, baina bagaude energia nuklearraren esparruan.

70eko eta 80ko hamarkadetan gertatu ziren, halaber, energia nuklearren inguruan ezagunak diren istripurik larrienak. Azken bi hamarkadetan aldiz, energia nuklearra ez da hedabideetan aparteko notizia izan, eta izan bada, teknologiak izan dituen aurrerapenak azpimarratzeko izan da, edota energia fosilen ordezkoko erreala bilakatzeko eman nahi zaizkion aukerengatik izan da. Energia nuklearren aldekoek lan bikaina egin dute, isil-isilik eta pausoz pauso, eta horren ondorio da Garoñako zentralari bizia luzatu izana. Frantzia ere beste hainbeste zentral nuklear zaharren iraungitze data atzeratu izana, Alemanian ildo berean aritu izana; munduko ia lekurik gehienetan ari dira 70eko hamarkadan eraikitako zentral nuklearren bizia luzatzen.

Baina Japoniak mamu guztiak esnatu ditu. Lurrikara handiak jasateko diseinatuta dauden zentralek ongi jasan dute lurrikararen eragina. Tsunamia ere jasango zuketene, ziur naiz, bere horretan eta besterik gabe gertatu izan balitz. Lurrikara eta tsunamia segidan gertatzea aukera mespretxagarria izango zen estatistikoki, baina gertatu egin da, eta orain gertatutakoaren ondorioak jasatea gogorragoa egingo zaie. Eta gainera, askatutako erradioaktibitateak hasieran Pazifikoranzko bidea egin bazuen ere, borrasken ondorioz edozein



DANI BLANCO

unetan itzul daiteke, eta euri erradioaktiboen bidez ondorio are okerragoak eragin, orain arte salbu dauden (zerbait salbu baldin badago) eremuak poluituz.

Eta gertatu dena ez da deus gertatuko denarekin alderatzen bada. Izan ere, Japoniako Gobernua eta munduko energia nuklearren inguruan antolatutako erakunde gehienak gezurretan ari dira. Hasieratik

dakite Ozeano Bareari begira dauden zentralak —ez bakar hau, baizik eta denak— bonba geldiezinak direla; hasieratik dakite erreaktoreko kutxen presioa erregulatzean atmosferara erradiaktibitatea isurtzen ari direla; hasieratik dakite errefrigeratzeko erabiltzen den itsasoko ur hori poluituta itzultzen dutela itsasora; hasieratik dakite datozen hamarkadetan milaka pertsona hilko direla jasandako erradiazioaren eraginez; hasieratik dakite, bizirik irautekotan, milioika lagunak euren irla utzi beharko dutela Japoniako lur-eremu oso zabalak milaka urte-tarako kanposantu bilakatuko baitira; hasieratik dakite ezin dituztela Japoniako biztanle

guztiak (127 milioitik gora) irlatik atera, eta heriotza, minbizia edo aldaketa genetikoak gertatuko direla, eta hori onartzea besterik ez dela geratzen.

Gezurretan ari dira Espainiako Kontseilu Nuklearrekoak esaten dutenean Japoniako Gobernua egoerari eusten ari zaiola eta gauzak ezin direla Espainiara extrapolatu. Agian, egiara hurbiltzen den hipotesi bakarra Frantziako Gobernutik etorri zaigu, adierazi duenean 7ko eskala batean 6an gaudela eta ez 4an.

Fukushimak aberastasuna ekarri omen zien bertako biztanleei, arrantzale eremua zena hiri moderno eta aberatsa bihurtu baitzen. Ez dakit han inoiz izan ote zen energia nuklearra zalantzan jarri zuenik, baina egia da belaunaldi gazteek ez dutela beste ezer ezagutu.

Aberastasuna lortu zuten, baina naturak lurra eta bizia kendu dizkie. Eta orain epe motzean Japoniari argindarra petroliotik lortzea baino ez zaio geratzen. Falta zena! ■

«  
Gezurretan ari dira Espainiako

Kontseilu Nuklearrekoak esaten dutenean

Japoniako Gobernua egoerari eusten ari zaiola

eta gauzak ezin direla Espainiara

extrapolatu. Agian, egiara hurbiltzen den

hipotesi bakarra Frantziako Gobernutik

etorri zaigu, adierazi duenean 7ko eskalan

6an gaudela eta ez 4an  
»



Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

## Fukushima

**B** agenekien tsunami hitza Japoniatik zetorrela, oraingo berri txarren antzera. Fukuyama sumendi elurtuaren irudia ere txikitatik ezagutu genuen. Aldiz, aste hauetan gure begietara datozen irudi krudelak izen berri batekin loturik datoz: Fukushima. Eta burura datorkigu arma nuklearren lehen erabilpenaren lekua, Hiroshima hain zuzen. Truman presidente demokrataren aginduz hiri honi egokitu zitzaion eraso nuklearra. Eta ezin dugu ahaztu, japoniarrek are gutxiago, fisio nuklearren lehenengo intentzioa jendea modu masiboan hiltzea izan zela. Geroxeago “bakerako atomoak” asmatu zituzten, baina zapuzketa ederra hartu zuten sobietarrek fisio nuklearren teknologiaren domeinua iragarri zutenean.

**TXERNOBYL.** 25 urte dira (apirilaren 26an) Ukrainiako zentral nuklear horretan inoiz izandako istripu nuklear larriena gertatu zela. Nola ahaztu bertan bizitza eman zuten 6.000 langileak, ihes erradioaktibo hiltzailearen gainean harea, porlana eta bestelako materialak jaurtiki zituztenak, iodo eta zesioaren isuriak gelditu arte. Inork ez du ukatzen giza-errakuntza sakona izan zela, baina mendebaldeko analistentzat sistema sozialista



IÑIGO AZKONA

burokratikoan soilik gerta zitekeen horrelakorik. Eta Windscale (1957), Harrisburg (1979) edo Tokai Mura (2000) ere Gorbaxoven lagunen akatsengatik gertatu al ziren? Txernobyleko gertakizun larriek eragin zuzena izan zuten Sobietar Batasunaren gainbehera politikoan, nire aburuz.

**GAROÑA.** Kasualitatea dirudi, baina Fukushima errektore bat Garoñan dagoenaren berdina da, General Electric enpresak egindakoa eta urte berean, 1971n martxan jarritakoa. Hondatu zen lehenengo, baita jarraian jarritako besteak ere. Galdera asko dugu erantzun gabe, baina jasotako kolpea, munduko ekonomia eta

teknologian bigarren edo hirugarren postua duen herrialdean, irakasgai ahaztu ezina izango dugu. Fukushima kutsadura erradioaktiboa gugandik urrun dabil baina jakin badakigu eztabaida eta politika energetikoak hemendik aurrera Fukushiman dutela gairatzeko asignatura bat. *Black out* –itzalketa– gertatu da, lurrikara eta tsunamiaren atzetik, ustekabekoa eta benetakoa, oso. Energia nuklearren aldekoen kalkuluetan kabitzen ez zena gertatu da. Horregatik Euskal Herriaren ondoko zentralak 40 urte bete dituenen berriz diogu: Garoña itxi orain! ■

«  
Energia nuklearren aldekoen  
kalkuluetan kabitzen ez zena gertatu da.  
Horregatik Euskal Herriaren ondoko  
zentralak 40 urte bete dituenen  
berriz diogu: Garoña itxi orain!  
»

**EUEDEL**

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune Plaza, 5  
48009 Bilbao  
☎ 94 423 1500  
Faxa: 94 424 3947  
eudel@eudel.net

www.eudel.net

## BERTSO BERRIAK

Joanes Etxebarria

### Bertso egin ezinari jarriak

#### I

Heben kolaboratzen düener  
biba, bravo, zorionak  
egün ikusten hasi niz zinez  
zidela bertsola(r)i onak  
ez dakit hola sortzen direnez  
plaza emazte-gizonak  
bena nontik biltzen dütützüe  
beti ideia sakonak?



#### III

Bertsotan hasi niz düala\* güti  
hitz joküen amodioz  
bena gai gabe errimatzea  
ez zait batere aisa dios !  
Oraikoan lotü behar natzaio  
egin behar düt serios  
ideia zerbait jinen zait segür  
nahiaren poderioz.

#### II

Nik aste hontan düdak nütüan  
zertaz nüan idatziko  
Egün ez zait jin, bihar age(r)i  
beti üzten nüan\* etziko  
euroagindu, Txiapas, krisia  
besteer dütüt ützi  
ez dakidanaz ene iritzia  
ez niz emaiten hasiko.

#### IV

Bertsolari honer hartü badeitzet  
maiteen nütüan hitzak  
ez dütüt bildü haien entzütez  
sorkuntza bideko giltzak  
gaiak gogoan franko nütüan  
bena iritziak hitsak  
zonbat sufrimentü ekarten düan  
halere bertsolaritzak!

#### V

Hein hontan badüt kezka handi bat  
eüskaldün aldizkarian  
ez ote denez zentzügabeko  
hitz zerrenda bat orrian  
ez ote denez itzalgüne bat,  
handiegia ARGIAN  
gogoeta bat balitz bezala  
hartürrik date agian.

NOLA ERRAN:

Nüan = Nin

Düala = Dila

Düan = Din

**DOINUA:** Lazkao Txikik ispiluari kantatutakoa, "Haizak nik hiri bota behar dit...".



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.



## Etxepare Institutua Mundura nola jalgi

Aizpea Goenaga antzerkilariak Etxepare Institutuko zuzendaritza 2010eko ekainean hartu zuen arren, joan den astean ekin zion euskal kultura nazioartekotzea xede duen erakundeak bere burua promozionatzeari. Bilboko Arriaga antzokian estreinatutako *At!* ikuskizuna da institutuaren aurkezpen-txartela: 25 idazle, 26 aktore, zazpi musikari eta Kukai dantza taldeko kideak, Mireia Gabilondo eta Fernando Bernuesen zuzendaritzapean.

GORKA BEREZIARTUA

GUTXITAN HALAKO AURREKONTURIK euskaraz sortutako ikuskizun batek: Sustatu.com webguneak ikuskizunaren estreinaldi egunean, martxoaren 15ean, argitaratu zuenez, 200.000 eurotik gorako buxeta izan dezake *At!*-ek (ikuskizuna antolatzeke baldintza pleguak gehienez 99.999 euro aurreikusten zituen zuzendaritza artistikorako; beste horrenbeste ekoizpen teknikorako; Tanttaka Teatroak jaso du aurrenekoaren esleipena eta

Tentazioa Produksioak bigarrenarena). Aizpea Goenagak telefonoaren beste aldetik dio hori hasieran onartutako aurrekontua dela, baina ez dela hainbeste kostako. Martxoaren 16an ari da galderei erantzuten; estreinaldiaren biharamun gozoarekin esnatu da: "Atzoko ederrena izan zen euskara Arriagan sartu zela galaz jantzita; eta hori, oso ederra da... oso ederra. Antzokia beteta zegoen, 1.200 pertsona zeuden, goi mailako literatura

JON URBE / ARGAZKI PRESS



entzutera joandako jendea. Hori egiteko 200.000 euro, niri ez zait garestia iruditzen”. Bestelako promozio kanpainarik ez dute egingo, Etxepare Institutuaren irudia ikuskizun honen bidez zabaltu nahi baitute; eta Goenagaren iritziz, urteak eman go dituzte joan den asteko lanari etekina ateratzen.

Ekainean zuzendari postuan urtea beteko duen arren, askoz denbora gutxiago darama aktore eta zuzendari donostiarrak lan taldearekin: kargua hartu arren, zenbait hilabetez tripulaziorik gabeko patroia izan da, Jaurlaritzako Kultura Sailaren babespean. Iazko abuztuan egin zen publiko institutuko lanpostu deialdia eta irailetik aurrera bi teknikari, idazkari teknikoak, idazkaria eta komunikazio arduraduna kontratatatu dituzte. Azaroan etorri zen institutuaren hurrengo fitxaketa: Mari Jose Olaziregi EHUKo irakaslea izendatu zuten euskara sustatzeko zuzendari. Besteak beste, Bernardo Atxagaren obra ikertu izanagatik da ezaguna Olaziregi euskal literaturaren munduan.

Momentu honetan beraz, zazpi lagunek osatzen dute Etxepare; eta lan talde horrek kudeatuko ditu atzerrira bideratutako kulturako diru-laguntza guztiak. Aparte, institutuak bilatuko du, Goenagaren esanetan, euskal kulturak kanpoan orain artekoa baino “leku zabala” edukitzea. “Adibidez, Madrilengure kultura ikusi egin behar da. Urtetan egoera politikoa dela-eta, edo dena delakoagatik, euskal kulturarekiko lehenago egon zen miresmena itxi egin da; orain, berriz joan behar dugu, musikak eduki behar du bere presentzia Madrilengure, antzerkiak eduki behar du sarrera Madrilengure... Horrek ikusgarritasuna emango dio hemengo talde askori eta ondoren emanaldi gehiago ateratzeko aukera”.

### Nola lan egin lehenago jalgi zirenekin

Institutuaren arduren artean dago atzerriko unibertsitateetako irakurle-programak kudeatzea ere. Euskara nazioartean irakasten da programa horien bidez, eta martxan daude duela zenbait urtetik hamahiru herrialdeetako 25 unibertsitateetan; horiez gain, badira euskara sailak dituzten unibertsitateak ere, Mexikoko Universidad Iberoamericana, AEBetako Boise State University eta Italiako Università Popolare di Roma (UPTER), besteak beste.

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



**“Euskara mundiala” egitasmoaren aurkezpenean ateratakoa da goiko argazkia. Aizpea Goenaga (hirugarrena ezkerretik) Etxepare Institutuko zuzendaria eta Mari Jose Olaziregi (eskuineko lehena) euskara sustatzeko zuzendaria ageri dira, egitasmoan parte hartu duten atzerriko gazteekin batera.**

Programa horiek hartuko ditu bere gain Etxeparek beraz, berriak sortzeko asmoa ere badu, baina ez dago hain argi zeregin zabala goak dituzten euskara sail batzuekin zer gertatuko den. Frankfutekoa, adibidez, itxi egin da. Diru-laguntzetan ere nabaritzen hasia da nora bide aldaketa: Erromako UPTER Euskal Sailak %23ko murrizketa izan du Etxepare Institutua jaio denetik. Gainera, Kultura Sailak UPTERekin sinatutako azken hitzarmenak zera zehazten du hamahirugarren puntuan: Etxepareren helburuekin lotura zuzena duten programa guztiak institutuak berak kudeatuko dituela. Alegia, finantziarioa eta gestioa, biak bere gain hartuko dituela institutuak aurrerantzean, sailaren zuzendaritza aukeratzea unibertsitatearen zeregina izango bada ere.



Departamentu horretako kolaboratzaile Alex Mendizabal ez dago ados Etxepare hartzen ari den zenbait erabakirekin. “Irakurle programa berriak zabaldu nahi badituzte, oso ondo; baina gu departamentu bat gara. Beraiek esan digute irakurleko programan sartzen ez bagara diru-laguntza kenduko digutela”. Gaiaz galdetuta, Aizpea Goenagak esan du auzi honen iltzea UPTERen izaera “popularra” dela. “Horrelako unibertsitate batek... arazo batzuk dauzka” esan du, “ez dauka maila akademikorik, ez du krediturik ematen, hori da nabarmenena. Akademia batean egotea bezala; horra joaten dira jubilatua edo umeak... eta hori oso ondo dago, balore handia dauka, baina gure helburuetatik urrutiratu egingen da”. Aurrerantzean ere UPTEReko Euskara Sailarekin lanean jarraitzeko asmoa dutela dio, baina egoera “moldatu” egin beharko dutela. “Maila akademikoa” daukan unibertsitate batean jarri nahi dute martxan irakurle programa, Sapienزان edo Roma Tren, adibidez. “Irakurle bat jartzen duzu eta horrek klaseak ematen ditu, ekintzak egiten ditu eta optimizatzen dugu, askoz diru gutxiago kostatzen baita”.

Baina, Mendizabalek zehaztu duenez, irakasle bakarra izango litzateke hori eta ez departamentu oso bat; eta orain arte UPTERen lanean aritu diren gainontzeko pertsonen “laguntza talde” modura aritzea proposatu dietela esplikatu du. Aukera hori baino nahiz du ordea, departamentuan jarraitu, nahiz eta diru-laguntzarik gabe aurrera jotzea zail ikusten duen. “Gu oso itxaropentsu geunden institutu berri bat agertu zenean; orain kezkatuta gaude, iruditzen zaigulako hau izugarritzko porrota izan daitekeela”.

### **Stanforden irakurlea, New Yorken Atxaga katedra**

At! aurkezteaz batera, Etxeparek bi notizia berri ere eman ditu pasa den astean: batetik, datorren ikasturtetik aurrera irakurle berri bat hasiko da Kaliforniako (AEB) Stanford unibertsitatean; bestetik, New York unibertsitatean euskal literaturari buruzko Atxaga katedra sortuko dute. AEBetan indar berezia egiten ari ote diren galdetuta, Goenagak adierazi du Estatu Batuetakoak direla gaur egungo unibertsitatearik prestigioetsuenak eta “arreta berezia” jarri behar dutela han. Ramon Llull institutuaren eta Galiziarako Sekretaria Xeral de Política Lingüísticaren bidea jarraitzen ari dira, katalanak eta galiziarrek dauden unibertsitateetan euskara ere sartzen saiatuz.

**Atzerrian euskara irakasteko  
irakurle programak bere gain  
hartuko ditu Etxeparek, baina  
hori baino zeregin zabalagoak  
dituzten sailekin gertatuko dena  
ez dago argi. Erromako UPTER  
Euskara Sailak %23ko jaitsiera  
izan du diru-laguntzetan**

Dena den, European ere badauzkate proiektuak: “Frantzian ez zegoen irakurlerik; hor bazegoen konpondu beharreko zerbait”, eta Sorbonne IIIen irakurlea jartzeko lanean ari dira, baita hexagonoko beste bi unibertsitate-tan ere.

### **Euskal kultura ala elebiduna?**

“Euskal Herriak, bere zabalera txikia dela eta, beti munduari ateak irekita bizi behar izan du, asimilatuz, eraldatuz eta transmitituz, literaturan Barojak eta Unamunok, Blas de Oterok eta Lizardik, edo Atxagak eta Espido Freirek egin duten bezala” irakurtzen da Etxepareren webguneko ([www.etxepareinstitutua.net](http://www.etxepareinstitutua.net))

“Euskara eta euskal kultura” atalean. Arreta deitzen du sei idazletik lau erdaldunak izatea eta esparru horretan, hizkuntzarenean alegia, nola jokatu duen galdetzeko bidea zabaltzen du. Euskal sortzaileek eta erdaldunek leku bera izango dutenentz, alegia, erakundeak bultzatuko dituen egitasmoetan. At!-en hainbat idazle erdaldunek parte hartu dute, berbarako, euskaldunekin batera.

Goenagak dio institutua sortu zuen legean datorrela hori, 3/2007an. “Euskara eta euskal kultura, bere *hizkuntza ofiziale-tako edozeinetan* eta zeinahi adierazpen, euskari, bide eta adierazmoldetan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzeko, hedatzeko eta proiektatzeko” misioa ematen zaio Etxepareri, baina zuzendariak garbi hitz egin du: “Euskaraz egiten den kulturari jarriko diogu arreta gehiago, erdaraz egiten den kulturak badauzkalako beste bide batzuk promozionatu ahal izateko. Horretan oso eskrupulosoak izan behar dut dena den; legeak horrela dio. Portzentajeak ez dira 50 eta 50 izango, baina erdaraz egiten denak lekua izan behar du”. ■



**Euskal Museoa**  
Miguel de Unamuno plaza 4 • 48005 BILBO  
Tel. 94 415 5423  
[museoa@euskal-museoa.org](mailto:museoa@euskal-museoa.org) • [www.euskal-museoa.org](http://www.euskal-museoa.org)

# beranduegi

## ARGIAren albistegia interneten

Beranduegi gatoz, telezaborrak hartu dizu egongela. Txutxumutxu, pilota partidu, reallity show eta informazio transgenikoek burmuina kutsatzen dizute.

Bai, guri ere bai.

Horregatik erabaki dugu ARGIA n, astean behin Internetarako propio pentsatutako telebista saio bat egitea. Euskarazkoa. Ironikoa. Berritzailea. Laburra, baino sakona.

Beranduegi... ohiko eredueta erortzeko.



telebista  
saio  
berria

### Asteartero...

- » elkarriketak
- » blog irakurketa
- » erreportaje sakonak
- » aktualitatearen analisi ironikoa
- » lehiaketa barregarriak
- » ...

[www.argia.com](http://www.argia.com)


[www.beranduegi.tv](http://www.beranduegi.tv)





## ANA ZAMBRANO

## Gaia: Zuhaitzak



Kike Amonarrizen umorea

Eta Plassnik andereak:  
– Aizu! Eta iaz Afganistanen  
egon nintzenean ez al zenidan  
Justizia ministroa aurkeztu?

|   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|
|   | S | G | B | H |   |
|   | G | E | R | A | K |
|   | X | U | T | R | R |
| J | Z | U | M | A | R |
| P | A | G | O | I | H |
| B | K | L | O | N | E |
| Z | E | L | O | H | E |
| G | E | R | L | A | E |
| G | O | I | E | R | I |
|   | Z | I | F | E | R |
|   | H | A | R | I | T |
|   | I | O | K | O | B |

# Liburuak

KRITIKA

Joan zaretenean.  
Jokin Muñoz.  
Alberdania, 1997.  
168 orrialde. 11,80 euro.

Hemeroteka

Aritz Galarraga



## Aitaren etxetik askatu

BADA *Bizja lo* aurreko Jokin Muñoz bat. Ahaztua, atzendua, ezezaguna ez dakit, baina bada izan, eta irakurgarri, noski. Izan zitekeen estreinakoa, *Hausturak* narrazio lana, 1995ekoa. Izan zitekeen *Atlantidara bizja* bidaia liburua (nola definitu purrustada kitzikagarri hori?). Haragia ahula da, ordea, eta *Joan zaretenean* aukeratu diot, nobela nola ez, genero erregea, iragarpen txatxu bat eginda, eta gauzak daudenean, etorkizunean iraungo duen genero bakarra izango baita, akaso besteak bere baitan hartuta, nobela kreola. Edo, itxaron, ez al zen nobela hiltzen ari? Berdin dio, Aingeru Epaltzak aurreratu zigun Muñozen hau bikaina dela. Ikus dezagun.

Hiru pertsonaiaren gainean eraikitzen da kontakizuna: Alvaro, lehenik, nagusiki, bera baita narratzailea, bera zuzentzen baitzaio Helenari, lagun izandako neskari. Helena dugu, hain zuzen, bigarrenik, eta hirukia osatzen du Mikelek, Alvaroren gazte garaiko adiskideak. Helena joana zaio dagoeneko, Mikel inpentsan eroriko da Alvaroren txapitulan, jarri berri duen bonba autoaren beste puska bat bailitzan, iragan hondarrak bortizki harrotuz. Mikel mendetan iraunkortasuna eta leialtasuna sobera estimatu dituen mundu ikuskera baten oinordekoa da. Alvaro garaiokoin hobeto ezkontzen diren ahuldade eta iraungikortasun neurrigabe baten semea. Baina biak ala biak, Helena, zera besterik ez dira: aurrekoek altxatutako etxea defendatu eta iraunaraztera kondenatutako oinordeko ziztrin batzuk.

Eta, bai, euskal gatazkaren presentzia etengabe eta molestagarria da hemen ere, Muñozek ohi dituen irudi gogor, kolpagarriez, nolabait esatearren, apaindua, espaloi bazterrean botatako haurgorpu lehertu haien imajinaz, esaterako. Bai, *Bizja lo* hartako estilo astun, zurrin, errepikakorra da hemengoa ere, obsesiboa, luze-zabala, Helenari zuzentzen zaio bakarrikzeta atsedetik gabean Alvaro nahasia. Bai, Muñozen ibilbide literarioan aurkitzen diren konstanteak ditugu hemen ere, ihesarekiko antsia, distantziaren beharra, errebeldia indibiduala. Bai, errealismoa da hemengoa ere, errealismo psikologikoa, existentzialista nahiago bada.

Baina, bikain, harrapatzen du belaunaldi bat, egiten du haren erretratu gordin gupidagabe deserosoa, aitaren etxetik askatzeko aldarria, aurreko belaunaldiek eragiten duten karga arintzeko ariketa, eta egiten du aipatu erremintekin, egiten du ondo, ados izan zein ez, egiten du zerbait mugiarazteko irakurlearen barrunbeetan. Beraz, bada *Bizja lo* aurreko Jokin Muñoz bat, kurioski, Jokin Muñozen antz izugarria duena. ■

## Zientziak argitu dituen ideiak ulertzeko

Ekain Martinez Lizarduikoak idatzi duen *Nahas-mahasa zientzia, natura eta teknologiari buruz* liburuak helburu argia du: azken hamarkadetan zientziak argitu edo hankaz gora jarri dituen hainbat ideia, teoria eta misterio irakurle euskaldunari eskaintzea. Izan ere, zientzialariek egiten dituzten aurkikun-

tza garrantzitsu askok gure aurreko jakintzak zalantzan jartzera garamatzate, gure burua ikuspegi berrietara egokituz. Planteamendu klasikoetatik urrundu, zazpi multzotan banatzen da lan hau, eta horien bidez jakintzaren ia eremu guztietan murgiltzeko parada eskaintzen dio jakiminez hurbiltzen den irakurleari. ■



*Nahas-mahasa...*  
Ekain Mtz.  
Lizarduikoa.  
Gaiak.  
246 orrialde.  
22 euro.

## Jon Arretxeren '7 kolore'

Jon Arretxek idazle bizkaitarraren azken liburua zazpi ataletan banatuta dago eta bakoitza kolore bati dagokio. Beltza eta zuria, hurrenez hurren, ibilbidearen hasiera eta bukaera dira; horien bidez Arretxek erakusten du zein diferentea izan daitekeen heriotzaren ikuspegi kulturaren arabera. Idazlearen benetako bizipenak dira liburu honetakoak, egoera gogoangarriak; tristeak batzuk, beldurgarriak bestetarik, baina baita esperantzaz beteak ere. Narrazioez gain, edizio dotoreko liburu honek baditu bestelako osagaiak ordea: Cristina Fernández arduratu da liburua ilustrazioz janzten eta Francisco Ibañezek musika jarri dio kolore bakoitzari, irakurtzeaz gain liburua entzun dezagun. ■



*7 kolore.*  
Jon Arretxe.  
Erein.  
205 orrialde.  
26 euro.



# Diskoak

IKER BARANDIARAN



## Presaka.

Al Infierno en Goitibera.  
Politburo Recording Fiasco.  
Iraupena: 45'17".  
5 euro.

## Hardcorearen hitz, musika, jarrera eta osagaiak

LAUDIOKO talde honen izena oso ona da, baita bere laburdura ere. Euskal Herriko hardcore eskola homologatu bakarrenetarikoan (Andoingo Gazte-arekin batera) hazitakoak dira, Pinturen Etxean, eta hori igartzen da. Al Infierno sortu aurretik, Ostakulo, CLGSE, ZEN, Une Latzak eta beste hainbat taldetan ibiliak dira. Jakina, ez dute inor engainatuko eta hardcore zein punk estiloetan barrena dabilta, hori baita beraien esentzia. Tarteka eus-

karaz eta tarteka gaztelaniaz, batzuen-tzat topikoak diren egunerokotasuneko kontuak salatzen dituzte; eta horretarako erritmo, estilo eta amorru intentsitate desberdinekin jolasten dute. Tartean, badira pieza melodikoagoak eta *zapati-lla* hutsak, baita rap eta metal ukitu batzuk ere. Askoren artean, El Corazón del Sapo eta Spermbirds gogoarazi dizkidate.

[www.alinfierno.com](http://www.alinfierno.com)

## Al Infierno en Goitibera

## «Gaur egun tertuliano askorentzat kantatzen duguna terrorismoa litzateke»

“Arinegi joateagatik ez diozu zure bizitzari etekinik atara”. Hardcorea azkarra da... zer da bilatzen duena?

Intentsitatea, indar bat. Bizitza mugimendu hutsa da eta heriotza mugimendu eza. *Presaka* abestian dioguna, aldiz, kontrakoa da: gaur egungo bizimodu azkar eta estresanteak oraina bizi beharrean geroa prestatzen bizitzera bultzatzen gaitu eta “gero” hori ez da inoiz hel-tzen. Ikuspegi kapitalistan “denbora galtzea” dirua galtzea da.

“Osasunez drogatuta nahi dut arrisku arraro gabe”. Badirudi Tabakoaren Kontrako Legearekin, beste drogei buruzko hipokrisia eta eztabaida ahaztu ditugula, ezta?

Gutziz. Hitz horiek zera esan nahi dute: drogatuta nahi duena drogatuta dadila, baina aukera izan dezala zer hartzen duen jakiteko. Horrekin ez dugu drogen apologiarik egin nahi,



askotan oso suntsikorrak izaten direlako. Norberak bere bidea topatu beharko luke eta zerk onura edo kalte eragiten dion askatasun osoz ikasi, kontu apur batekin erabiltzeko. Askatasuna ez dugu debekuekin sekula lortuko.

“Politikariak, Errealitatea, Gosea eta desberdintasunak, Ama Lurraren

hondamendia, Kontsumismoa, Errepresioa, Askatasuna, Espetxeak, Denbora, Aberatsak, Telebista, Presa...”. Gai horietaz hitz egin eta abes-tea panfletarioa dela esango lukete askok...

...eta beste askok gauza okerragoak. Gaur egun tertuliano askorentzat kantatzen duguna terrorismoa litzateke. Denetik dago. Guk ez dugu ezer saltzen eta gure irrika eta pentsamenduak islatzen ditugu hitzetan. Lore baten edertasunari buruz idatzi genezake, baina gure musika ilunegia da horretarako eta horrek ez gaitu nahikoa hunkitzen edo larritzen kanta bateko hitzak egiteraino.

Gaztetxe eta etxe okupatuei lotuta hazi zarete...

Bai. Etxe okupatu eta askeek ezinbesteko garrantzia dute herrietako kulturaren garapenean eta gauza berriak sortzeko ematen duten aukerengatik. ■

# Ezpalak

JON TORNER

## Hala Bedi irratia bazkietza kanpaina abiatu du

GASTEIZKO Hala Bedi irratia libreak *Izan zaitetz halabeharri!* No es que me sienta, lo soy izeneko kanpaina jarri du abian, bazkide gehiago lortzeko helburuarekin. “Gure finantziario apustua bazkietzarena da, alegia, Hala Bedi Irratiaren jarduna gogoko duenak eta aurre-ra jarrai dezan nahi duenak diruz laguntzea”, diote irratiko kideek: “Hori bai, norberaren esku dago kopurua zehaztea, ondoen dagokizuen edo ondo deritzozena. Bai bai, halaxe da. Hilean 5€, 8€, 10€, 20€... Zuek erabaki”. Informazio gehiago: [www.halabedi.org](http://www.halabedi.org).

## Abian da Topagunearen ‘Laburbira’ zirkuitua



TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioak antolatutako *Laburbira* zirkuituaren zortzigarren edizioa abian da jada. Herrietako euskara elkarteekin lankidetzan antolatzen du Topaguneak egitasmo hori. 27 emanaldietatik 26 Euskal Herrian izango dira, bestea berriz, Londresko Euskal Etxean. Proiektzio bakoitzean bederatzi lan erakutsiko dira, 2009 eta 2010

urteetan ekoitziak: *Maritxu* (Kepa Errasti), *Artalde* (Asier Altuna), *Ondar Aboak* (Ángel Aldarondo), *S@rtalde* (Jon Artola), *Esku-titi* (Saioa Aizpurua), *Blank Postcards* (Aitor Artola, Irune Gurtubai eta Ibai Vigil-Escalera), *Biak bat* (Zapatilla Films), *Barrura begira* (Trastaka) eta *Nire bista faboritoa* (Kontraplano).

**Leire Salaberria** ando-  
aindarrak irabazi du hau-  
rrentzako albumak sor-  
tzeko Etxepare saria,  
*Euria ari duenean* lanarekin.  
6.000 euroko saria jaso  
du, eta liburua irailerako  
argitaratuko du Pamiela  
argitaletxeak. “Neska txiki  
batek euria ari duenean  
bizi dituen anekdota txi-  
kiak” bildu dituela adiera-  
zi du Salaberriak. Albu-  
mean collagea, pintura,  
tipografia jokoak... erabili ditu ilustratzaile gipuzkoa-  
rrak. Bestalde, aurtengo sariketarako lanak aurkezteko  
epea azaroaren 30an amaituko da. Irudian, Salaberriak  
egindako marrazki bat, bere blogetik hartua: <http://leiresalaberria.blogspot.com>.



**Larraineko** (Zuberoa) herritarrek *Telesforo Monzon*  
pastorala emango dute aurtengo abuztuaren 7an eta  
13an. Testua Jean Bordaxar kantari zuberotarrak idatzi  
du eta Jean-Pierra Rekalt izango da Errejenta. Hilaren  
9an 30 urte bete ziren Telesforo Monzon (Bergara,  
1904 - Donibane Lohizune, 1981) idazle eta politikaria  
hil zela.

**Daniel Tamayo** (Bilbo, 1951) artistaren *Alegiak* era-  
kusketa izango da ikusgai Bilboko Arte Ederren  
museoan, ekainaren 12ra bitartean. Guztira Tamayok  
azken hamarkadan egindako tamaina ertain eta handi-  
ko 26 margolan bildu dituzte. Horietan, fantasiaz bete-  
riko istorioak asmatu ditu, inguratzen duen espaziotik  
hartutako elementuekin uztartuta.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

**FINALAURREKOAK**  
Martxoak 26 / Elizondo  
17,30 - Lur Aretoa

Julio Soto  
Xabier Silveira  
Aimar Karika  
Julen Zelaieta  
Iñigo Ibarra  
Aritz Saraguet

**NAFARROAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA**

**11**

[www.nafarroakotxapelketa.com](http://www.nafarroakotxapelketa.com)

[www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu)

Antolatzailea:  
**naferroako  
bertsozale  
elkartea**

Laguntzailea:  
**argia**



# Abarak

MIKEL GARCIA

## Transgresio musikala

“HERRIALDE ARABIAARRETAKEO emakume musikari askoren janzkera jada transgresio bat da, baita oholtza gainera atera eta kantatzeko duten jarrera. Tunisian musikariek oso modu metaforikoan erabiltzen dituzte hitzak, zentsurari aurre egiteko; Marokon debekatua dago Sahara hitza erabiltzea...” azaldu dit Fermin Muguruzak, elkarrizketa batean. Transgresio hitzak arau-urratze esan nahi duela diote hiztegiek, probokazio eta aldarrikapen konnotazio argia ere badu, eta musika aliatu bikaina da horretarako; galdetu bestela 80ko hamarkadako punk taldeei.

Gizarte bakoitzaren tabu eta inposaketez asko diosku transgresioak. Marokon Sahara transgresio dela genioen; Janet Jacksonen titiburua eta Lady Gagaren okelezko jantzia transgresio (eta espektakulu) dira estatubatuar puritano eta kontserbadoreen artean; Espainian kultura demokratikoa eta adierazpen askatasuna dira transgresio, Negu Gorriak, Su Ta Gar edo Sociedad Alcohólica taldeen kontzertuak debekatzeraino. Eta gurean, AHTaren, Pasaia

Superportuaren, makroartzelaren, autopista Scalextricoaren... hots, porlanaren eta azpiegitura erraldoien lurraldean,

transgresioa da erraustegiaren kontrako *flash-mob*ean iragan asteburuan bildu zen jendetzak kantatuko: “Hartu nahi dut arnas (...) Kontainer aurrean hartazu ba arnas. Plastikoa dut sudur zulotan, paper albala berriz enpastetan, begietan, ke beltza begietan. Ez nau halare itsutuko, atez ate bilatu ta azkenean ikusi det, argiya ikusi det (...) Hau da momentua, erabaki, ez pasatzen utzi, berandu baino lehen, hartu nahi dut arnas (...) Gipuzkoa garbi, errausketarik ez!”.

Bai, gizartearen adierazle dira lurralde horretako tabu eta inposaketak, baina baita horien kontrako mugimenduen indarra ere.

Gora transgresio musikala! ■



# Kilikatu Kultura, klikatu euskaraz!



www.gernika-lumo-  
*euskaraz*.com




# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## ADNan izandako galerak, gure eboluzioan gakoa

GIZAKIAREN EBOLUZIOA nolakoa izan den jakiteko, gehienetan antzeko espezieekin konparazioa egiten da. Stanford Unibertsitateko (AEB) Gill Bejerako eta David Kingsley ikerlariak martxoaren 11n *Nature* aldizkarian argitaratu emandako artikuluan, gizakiaren eta tximino handien artean dauden desberdintasun batzuen zergatia azaldu dute. Hain zuzen ere, bi ezaugarri aztertu zituzten: batetik, gizakiaren zakilean keratinazko ileak desagertu izana eta egun den gorpuzki leuna bilakatzea, eta bestetik, garuna askoz ere handiago bihurtzea.

Ugaztun askoren zakiletan biboteko ileen antzekoak topa daitezke; horien helburua omen da emearekin hobeto akoplatzea eta aurretik beste



WWW.BUHOJOJO.DE

ar batek utzitako esperma garbitu ahal izatea. Giza-kiarengan monogamiarako joera indartu ahala, ADNzko hainbat sekuentzia ezabatu eta ondorioz zakil leuna sortu da. ADNzko sekuentziak galtzeak beste ondorio bat izan omen zuen: neuronen sarea handitzea eta beraz garuna ere bai.

Ikerlariak, esandakoa frogatzeko, saguengan

egin dituzte galdutako sekuentzia genetikoaren testak. Baina honelakoetan beti galdera bat geratzen da airean: emeengan ez al da sekuentzia genetikoaren galerarik izan? Eta baiezkoan, ez al du inork ikertu zein izan den galera horren ondorioa? Batzuetan, badirudi gure espezieaz ari garenean beti arrez ari garela, emeak existituko ez balira bezala.

## Eskaner mugikorren bidean urratsa

NEW YORKEKO Brookhaven National Laboratory delakoan David Schlyer ikerlariak zuzentzen duen taldeak eskaner mugikorren alorrean urrats garrantzitsua eman du, saguen begi eta belarrien artean mini-eskanerra kokatuta. Jakin badakigu zerbait eskaneatu ahal izateko zerbait hori geldirik egon behar dela; beraz, izaki bizidunok mugimenduan ari garela ezin gure parametroak neurtu. Oztupo hori gainditzeko lehen pausoa da mini-eskaner hau. Saguek ez dute estresik jasan gailua eramateagatik; hurrengo urratsa beste animalia batzuekin probatzea izango da.

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

## Gehiegizko gantzaren aurkako borroka

EHUko Arrate Lasa ikerlariak, amaitu berri duen doktorego-tesian, giza-gantzarekin zerikuzirik izan dezaketen substantziak aztertu ditu. Horien artean *resveratrol* izenekoak izan ditu emaitzarik interesgarrienak, gantza murrizte aldera. <http://ttiki.com/24690> (Gaztelaniaz)

## Itsasontzi batean zerumugari begiratzea lagungarria da

Izenburuan esandakoa ez da gaurkoa, orain mila urte itsasotzian bidaiatzen zutenek ere zerumugari begiratzea gomentatzen zuten, zorabioari aurre egiteko terapia modura. Baina egia al da hori? Edo uste hutsa baino ez? Bada, badirudi egia dela.

<http://ttiki.com/24691> (Gaztelaniaz)

## Bizkarrezurreko lesioak konpondu ahal izateko bidea

Bizkarrezurretako lesioak oso bortitzak izaten dira, eta ondorioak, askotan, atzerazinezkoak. Baina badirudi minbiziaren aurka erabiltzen den farmako batek aukera berriak eskain ditzakeela aipatutako lesioak sendatze bidean.

<http://ttiki.com/24692> (Gaztelaniaz)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16



# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Gingil-hurritz

TXERTATZEN DIREN eta ez diren fruitu arbolen izerdialdi berrieroko loraldiaz aritu eta arbendolondoa, *Prunus dulcis*, almendrondoa ez aipatzea, ederra egin nuen aurrekoan. Ugariena ez, baina arbendolondotik erruz dugu Euskal Herrian.

*Vitis vinifera*, mahatsetik bai galanki; bere lorearen dotoreziagatik behintzat ez zaigu ezagun —erreparatu al diozu inoiz mahatsondoaren loreari?— baina bai bere fruitu mordoei kentzen diegun fruitu mordoagatik. Zukutzeko fruituak ematen dituzten arbolak izango dira, noski, mahatsaren segidakoak: *Olea europea* oli-

bondoa eta *Malus x domestica* sagarrondoa. Inola ere garraztea nahi izaten ez den oliba olio egiteko, bata, eta mikatz puntua behar baina inondik inora oliotzea nahi izaten ez den sagardoa egiteko, bestea.

Fruituaren mamia jota sortutako muztioa, mama gozoa, eskuratzeko jartzen direnez beste, fruitu arbolen artean hazia jaten diegunetik dugu gogotik. Ezagunenak hurra, intxaurra eta arbendola.


*Corylus avellana*, hurritza nonahi da gure bide bazterretan, baita basoetan ere. Lehen ere aitatu izan dut, ez alferrik, euskaldunok bizia zor diogu, milaka urtetan

gure bizigai nagusia izan den zuhaixka honi. Agian honexegatik hankapean darabilgu eta barre iseka egiten diogu kultura latinoen kolonizazio sotilaren fruitu nabarmenenetakoak diren intxaurraren, *Juglans regia*, eta arbendolondoren fruituak aho beteka irensten ditugun bitartean.

Izenetan argi dago, intxaurra baino zaharragoa izango da hurra. Arbendolondolari gingil-hurritza ere deitu izan zaio. Arbendola bera belarri-gingilaren tankerakoa delako edo.

Zuhaitz guztiak haritzak eta lizarak ziren garaietarako bidean artamugarria da hurritza. Hurrak ematen dituen haritza. Eta hur alea “goian edo zintzilik dagoen edo goitik datorren ontzi baten barruan dagoen bizia”. Ulertzekoa da fruitu barruetako haziei hur erantsi izana: intxaur, gingil-hur...

SEELENSTURM-CC BY SA



Arbendolondoa, *Prunus dulcis*.

# 08:19

Landareen energia iturria argia da. Ahal den energia gehien hartzeko borrokan landareak argia duten aldera zuzentzen edo okertzen dira. Lurretik hartutako jakiak eraldatu eta erabiltzeko moduan jartzeko hostoetara garraiatu behar ditu. Hostoek forma jakina dute argiari ahal den etekin onena kentzeko. Zortzi minutu eta hemeretzi segundo lehenago eguzkitik edo segundo bakar bat lehenago ilargitik abiatu den argiari.



**EKILORE**  
Lorezaintza eta loradenda

© 943 795 546

Elorregi bidea · Arrasate (Gipuzkoa)

# Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Milioika pose 85 urtean

VINTAGE EPHEMERA



Anatol Josephowicz  
(1894-1980)  
fotomatoia  
asmatu eta lau  
urtera, 1930ean,  
Arizonako  
fotomatoi batean  
ateratako argazki  
sorta.

NEW YORK, 1926KO IRAILA. “Egin argazkia zeure buruari! Zortzi pose, zortzi minutuan” idatzita zuen kabina ipini zuten Broadwayn, 51. eta 52. kaleen kantoian. Munduko lehen argazki estudio automatizatua zen, profesionalen beharrik gabe, 25 zentimoren truke eta minutu gutxian zortzi argazkiko zerrenda egiten zuena. Tramankulua 32 urteko Anatol Josephowicz siberiarrak asmatu eta patentatu zuen.

Anatol Josephowicz —abizena gero aldatu zuen— Alemaniara joan zen 15 urte zituela, eta han ikasi zuen argazkilari lanbidea. Lehen Mundu Gerra amaituta Shanghaira joan zen, eta Txinako hiri horretan zegoela bururatu zitzaion asmakizuna. Baina New Yorkera iritsi arte ez zuen ideia gauzatzeko beharrezko kapitala lortu: 11.000 dolar. Inbertsioa berehala bihurtu zen errentagarri.

1927ko apirilko *Times Magazine* aldizkariaren arabera, urte erdian 280.000 lagunek erabili zuten *photobooth* (argazki kabina) izeneko makina. Urte horren amaieran kabina Europara eta Kanadara iritsi zen eta Frantzia, lehenengoz, *Photomaton* esan zioten. Baina ordurako Anatol Josephowicz ez zen

makinen jabe. 1927ko martxoaren 28an, *The New York Times* egunkariko azaleko albisteak zioen Josephowicz milioi bat dolarren truke saldu zituela argazki kabina ustiatzeko eskubideak. Dirutza izugarria zen garai hartan, baina polemikoena Josephowicz diruarekin egin zuena izan zen: milioi erdia karitate egintzetarako eman zuen. Jendeak ez zuen ulertu Anatolek egindakoa eta, siberiarra zenez, altruismoa komunismoarekin nahastu zuten. Zorionez, urte batzuk falta ziren oraindik McCarthyren jazarpena abiatzeko eta Josephowicz 1928an Los Angelesera erretiratu zen, beste milioi erdiaz lasai bizitzera.

Urte horretan, André Breton surrealista fotomatoia “irudi bidezko psikoanalisi sistema” zela idatzi zuen. 1963an Andy Warholek fotomatoia erabili zuen Ethel Scullen erretratu ezaguna egiteko. Eta gaur egun, argazki digitalen aro betean, ordenagailuek eta telefono mugikorrek fotomatoi aplikazioak izan arren, dokumentu pertsonaletako argazkiak ateratzeko Josephowicz duela 85 urte Broadwayn jarri zuen kabina haren oinordekoak erabiltzen dira.

## Arrastoak

### Nork berritu behar du Betleemgo basilika?

BETLEEMGO Jaiokundearen basilika egoera tamalgarrian dago. XIX. mendearen erdialdetik ez da bertan berrikuntzarik egin eta, besteak beste, lurrikaren ondorioak jasan behar izan ditu. Orain, eliza kristauak (ortodoxoak, katolikoak eta armeniarrek) akordioa

sinatu dute eliza berritzeko, baina, zenbait adituren ustez, berandu izan daiteke ondare historikoa osotasunean berreskuratzeko. Gainera, oraingoz, dirua jarri duen bakarra —milioi bat dolar— Palestinako Aginte Nazionala izan da.



PALESTINE TOURISME DIRECTORY



## Roberto Gonzalez de Viñaspre

Trebiñuar filologo eta historialaria



# «Kontua ez da euskaldun izan nahi dugun, izan bagara»

Apirilaren 7an, hemen da Korrika, Trebiñutik Donostiara. Badugu Gipuzkoako berri. Goazen Arabako erdiguneko enklabera, Trebiñuko Konderrira eta Argantzunera, Roberto Gonzalez de Viñaspre herritarra lagun harturik.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

**Hasteko, zertan da euskara Trebiñun?**

Susperraldi egoeran gaudela esango nuke nik. Susperraldi neurtua, mantsoa, baina aurrera goaz, behintzat. Euskara Trebiñun desagertu zenetik, ez dugu izan haren egoera ezagutzeko modurik, ez geneukan berririk, ikerketa soziolinguistikorik, errolda daturik, ez beste. 2001ean,

Eusko Jaurlaritzak Euskararen III. Mapa Soziolinguistikoa egiten abiatu zenean, Trebiñun ere eskaria egin genuen, inkesta hura bera Trebiñun eta Argantzunen aplikatu zedin, hau da, enklabe osoan. Eta onartu ziguten, eta egin zen, eta, emaitzak eskuan, ustekabe atsegina izan nuen. Jakina, nik banekien Trebiñun euskaldunak bazirela –gu geu, tartean,

kar, kar, kar...–, baina ikerketak erakutsi zuen uste baino gehiago ginela euskaldunok Trebiñun. 2006an, IV. Mapa Soziolinguistikoa egin zuen Jaurlaritzak Euskal Herrian, Trebiñu barne, eta hor ere zenbait datu jaso genituen. Garrantzi handikoa da, hortaz, aurrean egingo den V. Mapa Soziolinguistikoa Trebiñu sartzea Jaurlaritzak.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

1998an egindako kontsultan trebiñuarren %70ak Trebiñu Arabako administrazioaren barruko izateko mekanismoa martxan jartzea eskatu zuen. Argazkian, herritarrek Trebiñu Arabari lotzeko aldarrikapen afixa prestatzen.

Inkesta soziolinguistikoa, oker ez banaiz, jendeak berak du aitortzen zertan duen euskararen ezagutza maila... Hala da, bai... Beraz, datuek diotenez, Trebiñun, zazpi biztanleetan batek dio ondo dakiela euskaraz, ahoz zein idatziz, hau da, %13,5ek badaki euskaraz. Horri, euskaldun pasiboen kopurua gehituz gero, euskaraz trebe ez izanagatik ere, ulertzeko gai direnak, %13 gehiago izango genuke: denera, % 26,5ek euskaraz daki, neurri batean bada ere. Horrekin batera datoz hizkuntzarekiko jarrerak eta gainerakoak. Datuak bat datoz, guztiz koherente dira, Arabako egoerarekiko.

Erakundeen bultzadak eta sostenguak lagundu du euskara aitzinatzen Trebiñun? Herri mugimenduak? Biek batera jardun dute?

Norbanakoen ahaleginaren emaitza dela esango nuke nik. Bere burua euskaldundu nahi izan duten guztien fruitu eta ondorio. Zenbait taldek ere lagundu du; Gutxisolo euskara elkarteak lan ederra egiten du. Erakundeetatik, berriz, hutsaren hurrengo jaso du euskaraz Trebiñun, minus-a jaso ez duenean! Alegia, erakundeez ari garenean, gaur egun, oraindik, Trebiñukooi dagozkigun instituzioak Gaztela-Leongoak (Espainia) dira. Esan egin behar da: trebiñutarren erreali-

tatea zein den azaldu dugu, euskararen ezagutza, euskararekiko jarrera ireki eta positiboa... Bada, errealtate hori ez da existitzen Gaztela-Leongo erakundeen aurrean. Hango autonomia estatutua 1983koa da, nahiz eta gero, 2007an egokitzapenak egin dizkieten. Tira, bada, lehenengo estatutu hartan ez zen gaztelania besterik aipatzen, huraxe hizkuntza bakarra. Egokitzapenak egin dizkientean, berriz,

## Zirrikiturik ez

“Gaztela-Leongo (Espainia) instituzioek ez dute, juridikoki, euskararen errealtatea aitortu nahi. Ez dute interesik. Udalek bestela jokatzeko dutela esango nuke. Trebiñu herrian, adibidez, PPK izan du agintea joan den lau urtean. Berez, jakina denez, Trebiñu administrazio jardunean Burgosi lotzeko alde da PP, baina, hala ere, Trebiñun ez dute euskararekiko jarrera aurrez aurrekorik. Bada zerbait. Eta diruz lagunduko du Korrika bera... Toki-mailan, behintzat, bada halako jarrera bat euskara konfrontazio-gai izan ez dadin. Badiot, Trebiñu barruan. Hortik harantz ez diote zirrikiturik ireki nahi”.

aipatu egiten da —eta, beraz, errealtatea da juridikoki, existitzen da— galegoa, Bierzo inguruan (Salamanca, Zamora, Espainia), baina, aldiz, euskararen presentzia Trebiñun ez da batere aipatzen. Inexistentek gara, alde instituzional horretatik.

Horren inguruko eztabaidetan parte hartua zara, Trebiñu-Euskal Herria, Burgos...

Sarritan galdetzen digute: “Aizu, baina zein da benetako interesa, muin-muinekoa, Gaztela-Leonek Trebiñu bere mendean nahi izan dezan?”. Nik diodanez, kontu identitarioa da, gaztelarren nazionalismoa da tarteko, existitzen da eta gauza hori. Horren adierazgarri bat da, anekdotikoa, baina esanguratsua aldi berean, Burgoseko tokitelebistan egin zen eztabaida batean entzun behar izan nuen. Ari ginen hizketan eta argudioa ekarri nuen plazara, esanez, artean Franco bizi zela, lur-permuta egin zela Gaztela-Leonen bertan, modurik naturalenean eta batere haserrekik gabe: 1973an izan zen. Burgoseko San Quirce udalerririk Palentziara pasatzea eskatu zuen eta aldaketa hura gauzatu zen, eta ez zen batere espanturik izan! Nik, eztabaida hartan, zertan izan behar zuen Trebiñun bestela, esan nuen. Ez nintzen inozente ari, jakina, ondoren entzun nuen entzun nahi nuen. Deitu zuen emakumezko batek, nire galderari erantzunez: “Erantzuna erraza da, orduko hura gaztelarren arteko akordioa izan zen. Trebiñuri dagokionean, gaztelarrek Trebiñu euskaldunei ematea da kontua, eta amu hori ez dugu irentsiko!”. Herritar soil bat zen, baina esanguratsua da, Arabako diputatu nagusi ohi Ramon Rabanerarekin honetaz hizketan berdintsua esan zidan-eta. Arabako ahaldu nagusi izan aurreko garaian zen, Arabako PPko presidente zen sasoian. Bileran ginen berarekin, Uda elkartearen ize-nean. Eta esan zigun: “Trebiñuko kontu hau hain da konplikatu, izan ere! Trebiñu Guadalajaran balego —eta Guadalajara aipatu zuen, gogoratzen dut—, Trebiñuko kontentziosorik ez genuke izango... Eta izango bagenu, di-da



batean konponduko genuke, bihar bertan! Arazoa da Euskal Herrian dagoela!”. Eta horixe da problema, ez besterik, eta hor gaude kati-gatuta, Euskal Herrian beste gauza askotan bezala.

### Euskararik irakasten da Trebiñuko eskolan?

Trebiñuko eskolako guraso-elkar-teak urte askoan administrazioari egin dion eskaria izan da euskara irakats dezan bertako eskoletan. Euskara txertatu eskola barruko jardun-ean, horixe nahi dute gurasoek. A eredia litzateke EAEn, baina hasteko modu bat da Trebiñun, eta ez da gutxi. Eskaera zehatza egin arren, eta behin eta berriz eginagatik ere, ukazioa izan da erantzuna, ezetz eta ezetz. Nahia aspaldikoa da, beraz. Bitartean, eskolaz kanpoko jardueretan euskarazko eskolak eskaintzen dira, eta, oraintxe, oker ez banago, ikasleetan erdiek parte hartzen dute ekintza horretan. Irakaslea, bistan da, Gasteiztik joan ohi da Trebiñura, horretarako. Hamabost-hogei urte dira jarduera gauzatzen hasi zenetik... Duela zortzi bat urte, Franku herrian, udalak haur eskola sortu zuen, Jaurilaritzak diruz laguntzen zuela. Sorreratik, euskaraz eta gaztelaniaz jardun du. Irakasle-begiraleak hartu ziren, euskaraz zekitenak, bistan da, eta are, EGA agiriaren jabe zirenak, EAEn eskatzen dena baino gehiago. Ume mordoa joaten zen haur eskolara. Aurten, berriz, Trebiñuko udal-gobernuak beste gela bat ireki du, haur hezkuntzakoa, Armentiaiko Bentetan, nahiz eta horren beharrianik ez zegoen.

### Premiarik ez zegoen?

Eredu elebidunaren orde, sistema hirueleduna jartzeko aprobetxatu dute: gaztelania, euskara, ingelesa. Horrek ezinbestean euskararen presentzia gutxituko du, ingelesaren parean jarritz. Ikusiko ditugu

## Lautadako populazioa

“Trebiñuko enklabeak bi udalerrri hartzen ditu, Argantzongo Udala, batetik, eta Trebiñuko Konderrikoa, bestetik. Horixe da ‘enklabea’. Trebiñuko Konderria ez da Argantzun, sekula ez da izan. Argantzunek, bestalde, badu alkate-auzo txiki bat, Billa-Oka. Trebiñuko Konderriak, aldiz, berrogeita zazpi ditu bere jurisdikziopean, Trebiñu buru delarik; udalerrri bakarra, 200 kilometro koadro inguru dituen. Populazio urriko parajea da, nahiz eta joan deneko hamarkadan gorakada itzela egin duen: Trebiñuko Konderrian 1.500 lagun izango gara, eta Argantzunen, ordea, ez dira mila izatera iristen. Eta, badiot, konderriko 1.500 lagun horiek 47 gunetan banaturik gaude! Sasetan bertan, esaterako –gu bizi garen herrian–, hamalau pertsona gara erroldatuak; gure etxe-koak dituzu lau!... Lautadako populazio-sistema da, hala da Araban. Beste herri batzuetako euskaldunek irudi bat izan dezaten, eta, esateko moduan, base-ri-auzoen egiturako herriak dira Trebiñukoak”.

emaitzak... Argantzunen, ikastola pribatuak gela bat irekia du. Herri berean, umerik ez eta eskola itxi egin zen duela urte batzuk. Gurasoek Gasteiza bidaltzen zituzten umeak, besteak beste, euskaraz ikas zezaten. Trebiñun, berdintsu gertatu zen. Kontzentrazio-eskola zen, Arabako herrietako umeak ere joaten ziren bertara, Urizarretik eta beste hainbat tokitatik. Momentu honetan, Trebiñuko umeetan erdia baino gehiago ez doa horra, Gasteiza baizik, D eta B

ereduko eskoletara. Egunero ikusiko dituzu autobuskada batzuk, umeak hartu eta Trebiñutik Arabako hiriburura bidean, sare publikoko ikastetxeetara.

### Zer esan Trebiñuko euskararen iraganaz?

Hasteko, esan dezagun, badakigula noiz galdu zen. Horra toponimia historikoa, argi-emaila paregabea. Leku-izenen argitan ikusten dugu zein hizkuntzatan sortuak diren. Oso gauza praktikoa da leku-izena, bertan sortua ohi da, tokian tokiko jendeak halako edo halako lekua izendatzeko asmatutakoa. Gaur egun, oraindik, toponimoen erdia baino gehiago euskarazkoa da Trebiñun. Jakina, horiek oso ongi gorde dira enklabe ekialdean, itxura antzean erdialdean, eta galera handiagoa dutela –baina euskarazkoak direla nabarmen erakutsiz–, mendebaldean. Euskaraz sortutako leku-izenak dira, euskarazko toponimia. Toponimo dentsitateari dagokionez, denboran zenbat eta atzerago egin eta, ageri denez, orduan eta gehiago dira euskarazkoak. Izenen deformazioa aintzat harturik, berriz, deformazio mailak erakusten digu noiztsu gertatu zitzaion identifikagarri trebiñutarrari, halako toponimo bat. Eta, ondorioz, esan genezake XVIII. mendearen bukaera-bukaeran galduko zela euskara Trebiñuko azkeneko herrietan. Trebiñu irla administratiboa da, jakina denez, baina ez da irla geografikoa, ez sozio-kulturala ere, eta, beraz, euskararen galera Trebiñun, gure hizkuntzak Araban izan duen atzerakadarekin batera dator. Ez dago aparteko historiarik. “Trebiñun lehenago galdu zen euskara, Arabako beste lekuetan baino?”. Ez. Olatu baten moduan sartu zen gaztelania, euskararen kaltetan, eta elebidun fase eta guzti, galduko zen euskara.

Babeslea: Bilboko Udala

**harrapa zank**  
www.harrapazank.com  
bilboko gazteen euskarazko aisialdi zirkuitua

Bilbao euskara  
euzko lehen unibertsitatea  
topagunea



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

**Trebiñuko Konderrian 1.500 biztanle inguru bizi dira. Ezkerrean, Korrika igarotzen. Aurten han hasiko da euskararen aldeko lasterketa.**

### Olatua izan zen, ala tsunamia?

Hara, datuek erakusten dute benetakoa etena, haustura, belaunaldi bakarrean gertatu zela. Joakin Landaurirri esker dakigu. XVIII. mendean Arabaz idatzi zuen lanean [Historia de Alava, 1798], mina adierazten du, bera lekuko da, ikusiz euskara arrapaladan galtzen ari zela Araban. Dioenez, aitona-amonak euskaldun hutsak ziren, haien seme-alabek euskaraz bazekiten eta gaztelaniaz moldatzen ziren, baina hurrengo belaunaldiari erakutsi zioten hizkuntza bakarra gaztelania izan zen. Aitona-amonak, batetik, eta lobak, bestetik, ez zuten elkar ulertzen. Landaurirriren lekukotasuna duzu, gutxi-asko esanda. Hortik, batzuek diotena: “Jendearen borondatez galdu da euskara Trebiñun!”. Ez dago horrelakorik. Nahikoa da soziolinguistikara jotzea, hemen gertatu dena ez baita hemengo gauza eskusiboa, beste hamaika lekutan gertatu dena baino. Agintean dagoenak halako mezu jakina transmititzen duenean –inposizioa erabiliz, eskolatik euskara baztertuz...–, eta betiere zabalduz delako

hizkuntza horrek onurarik ez dakarrela, ezpada pisua dela... autogorrotza ereiten du, eta horixe lortzen du: hiztunak berezko hizkuntza baztertera uztea. Baina ez da borondatezko hautua. Utik!

### Euskararen koloreari dagokionez, zein hizkelgi egiten zuten gure arbasoek hemen?

Ez dago dudarik, mendebaldeko hizkera, Arabako gehiengan hitz egiten zutena. Gaur egun ere, Bizkaia gehiengan kontserbatzen dena, eta Gipuzkoan Deba arroan egiten den euskara. *Continuum* bat da. Jakina, alde batean era bateko ezaugarriak ageri dira, beste aldean beste era batekoak, baina, enborra, mendebaldeko euskara da. Esaterako, Imiruri herrian Olabarri toponimoa dugu. Olabarri, eta ez Olaberri. Sasetan, Elexaldea dugu; Lejaldia gaur egun. Baina, hor ere, elexa, eta ez eliza. Eta beste hamaika. Trebiñu ekialdean, padura orde, madura dugu, Nafarroako hizkeratik gertuago... Duela berrehun bat urte bizi izan zen trebiñutarrak burua jasoko balu, badakigu nongo euskaldunekin moldatuko litzatekeen errazen, hizketan behintzat.

### Zer iruditzen zaizue trebiñutarro euskaldun egozentrikoek zuen lurrarekiko duten irudipen arrotza? Lurralde “exotikotzat” ere badute, askotan, Trebiñu...

Tira, Korrikarentzat, behintzat, Trebiñu ez da arrotza. Azkeneko edizioetan ez du hutsik egin eskual-

de honetan. Bestalde, aurreko Korrikaren amaieran, Gasteizen bukatu zen hartan, jende multzoa hizketan hasi zen. “Ondo da, Korrika Trebiñutik pasatu da, pasatzeko ohitura du... baina, bertan hasteko eskatuko bagenu?”. Eta halaxe bideratu zuen eskaria Gutxisolo elkarteak, ilusio handiz. Batzuek ilusioz egindako eskariari bestek jator erantzun, eta horra, Trebiñun hasiko da Korrika. Egia da diozun hori, alegia, Trebiñu zerbait exotikotzat, bitxitzat du euskaldun askok. Halaxe entzuten dugu, edota irakurtzen. Baina kontua ez da Trebiñukook euskaldun izan nahi dugun jendea izatea, ez da-eta horrela. Euskaldun, izan, bagara. Izatea barne-muinari dagokio, eta horretan ez du agintzen ez administrazioak, ez bestek. Euskal Herriko hango eta hemengo euskalduna bezain euskaldun gara Trebiñun. Ez dugu ezer izan nahi, bagara! Nahi izatekotan, aitortza nahi dugu, errekonozimendu ofiziala.

### Gure begian da lausoa, beraz. Begiak garbi dituzue zuek...

Gurea ere gizarte anitza da, iritzia bat baino gehiago dago, baina herri-kontsultak ez dira alferretan eginak, eta 1998an egin zen kontsultak, esaterako, erakutsi zuen gizarteak zer nahi zuen. %70ek eskatu zuen jar zedila martxan beharrezko den mekanismoa Trebiñu Arabako administrazioaren barruko izateko. Sentimendu hori ez da berria, belaunaldiz belaunaldi guregana iritsi dena baino: Araban sartzeko nahia 1646an dokumentatu zen lehenengo aldiz. Ondoren, 1710ean, eta harrezkero, gaur egun arte segitu du bizirik gogo horrek. Beste zera bat, hitzen erabilerari dagokiona: “Trebiñu Araban integratzea”, esan ohi da, baina, zuzen esatekotan, Historiarekiko begirune osoz, “berrintegratzea” esan behar genuke. Araba agertzen den lehenengo dokumentuetarik batean ere, bertan dira Trebiñuko herriak. Donemiliagako errejan, esaterako, halako zerga bat ordaintzen zuten herrien zerrenda ageri da. 1025ekoa da, eta latinez dator. Badiotsut, han dira Trebiñuko herriak. Araba gara, hasieratik beretik. ■



## Kantonamenduetako bozak

# Paueko Kontseilu Nagusia ezkerretera aldatzeko zorian

Abstentzioa da Hexagonoko kantonamendu bozetan nagusitu den hitza, bereziki hirietan eta konurbazioetan. Euskal Herrira jnik, aldiz, landetako kantonamenduetan, batez besteko parte-hartzea %70 izan da. EH Bai koalizioaren emaitza ona horren seinalea izaki.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

ABSTENTZIOA izan da Frantziako kantonamenduetako hauteskunde ezaugarri nagusia. Akitania Erregioko nahiz Pirinio Atlantiarreko departamenduko emaitzak Estatuko heinekoak izan dira parte-hartzeari dagokionez: batez beste, abstentzioa %55eko izan da. Ipar Euskal Herrira etorrira, 10 kantonamenduetako seietan, besteak beste Angelu, Baiona eta Biarritzeko kantonamenduetan Frantziako argazkia islatu da. Aldiz,

Hazparne, Bastida, Iholdi, Garazi, eta Atharratzeko kantonamenduetan –baserri mundukoak–, batez beste, hiritarren %70ak bozkatu du. Bozka abertzaleak, EH Bai koalizioaren emaitzek –kolore gorriaren eta urdinaren artean– bere marra nabarmen utzi du, Iholdi eta Garazin bereziki.

## Ezkerrak eskuina garai lezake

Paueko Kontseilu Nagusiko gidaritza jokoan dago. Bigarren itzulian

ebatziko da presidentea zentro-eskuineko –Bastiko Jean Castaings da presidentea– edo alderdi sozialistako (PS) kidea izango den. Aldaketa historikoa litzateke. Izan ere, Paueko Parlamentuan zentro-eskuinekoa izan baita burua beti.

Zentro-eskuineko independente Beñat Intxauspe kontseilaria izan da Ipar Euskal Herriko 10 kantonamenduetan berretsia izan den hautagai bakarra, bozen %60,10 (2.398) erdietsirik. Aipagarria da, EH Baiko Juliette Bergouignan-ek lorturiko emaitza: bozen %19,76 (780).

Bigarren itzulian erabakiko dira beste bederatzi kontseilariak. Lehen itzulian, hauetako seietan PSko hautagaiek hartu dute aitzina. Zentro-eskuina ez da ontsa paratua atera. Adibidea, Iholdiko Jean-Louis Caset zentroko hautagaia da, aurreko bi hauteskundeetan lehen itzulian hautatua izan baitzen. Jean-Louis Casetek, bozen %41,34 (1.139 boz) erdietsi du. EH Baiko Daniel Olzomendiren emaitzak eragin du horretan inola ere, bozen %32,12 (885 boz) erdietsi baitu. Erran behar da, Olzomendik alderdi sozialistaren eta Europe Ecologie Berdeen sostengua ukan duela. Eskuineko Beñat Cachenautek, aldiz, bozen %23,59 (650) erdietsi duenez, pentsatzekoa da, bigarren itzulian zentro-eskuineko aulkia ziurtatu duela.



Ezkerrak hartu dio aurea eskuinari. Garazin EH Baik erabaki behar du PSko Frantxua Maitia bigarren itzulian sostengatuko duen ala ez.



Dominique Bacho eta Daniel Olzomendi, EH Baik etorkizunean jorratu beharko duen bide politikoaren aurpegiak.

### EH Bai Garazin eta Iholdin giltzarri

Garazi kantonamendua, Iparraldeko barnealdean abertzaleek erdietsi dituzten emaitza onen beste argazkia da. PSko Frantxua Maitia kontseilaria garaitu da bozen %34,37 (1.220). EH Baiko Dominique Bachok bozen %18,03 (672) ukan du eta bigarren itzulian izanen da. MoDemeko Jean-Marie Malharro zentristak bozen %23,72 (842) ukatik, bera da Frantxua Maitiarekin lehiatuko dena. Izan ere, UMPko Jean-Pierre Eyhartzek bere sostengua eskaini dio bigarren itzulian, %15,54 (548) erdietsirik.

Frantxua Maitiak MoDemeko zentrista Jean-Pierre Malharroren aurka lehiatu beharko du eta EH Baik Garazi kantonamenduan erabaki beharko du bigarren itzulian Frantxua Maitia sostengatuko duen ala ez. Abertzaleek zentro-eskuina dute arerio nagusia, baina ezkerrek ez ditu –Frantxua Maitiak berak kanpainan erran bezala– abertzaleen aldarrikapenak zentro-eskuinak baino gehiago bermatzen. Alta bada, ez da ahantzi behar Daniel Olzomendi abertzaleak Iholdin ukan duen emaitza baikorra, alderdi sozialistaren sostenguekin lortu

duela. Frantxua Maitiak EH Bairen laguntza “exijitu” du sostengu horren ordainetan. Joko politikoa-ren “legea” lantzeko garaia iritsi zaie abertzaleei.

### Bigarren itzulia inoiz baino erabakigarriagoa

Abstentzioak inoiz baino irekiago utzi du bigarren itzuliaren jokoa. Ontsalaz, hautagai gehienak zentro-eskuineko –mapan urdinak– edo ezkerreko –mapan gorriak– izan, lehen itzulian nagusitu ohi dira. Pirinio Atlantiarreko departamenduko 26 aulkietatik 7 baino ez dira ebatziak izan. Ipar Euskal Herriko bat eta Bearnoko sei. Funtsean, Hexagono osoan ere horrelakoxeak izan dira, emaitzak eskuin-

naren kaltetan izan baitira. Ipar Euskal Herriaren adibidea Baionan eman da. Hiru kantonamenduetan alderdi sozialistak (PS) aurrea hartu dio zentro-eskuinari. Ezkerra aurreratu zaio eskuinari, eta halaber, Marine Le Pen-en Front Nationale (FN) bozen ehuneko hainbat hozka kendu dio Nicolas Sarkozyren UMP alderdiari. Paueko iparraldeko kantonamenduan izandako emaitza horren lagina dai: FNko hautagaia izan da garaile bozen %40 erdietsirik.

Kantonamenduetako bozak bigarren mailan iragan ohi dira Frantzia-ko eskuinarentzat. Hautesleek alderdiak baino hautagaiak lehenesten dituzte bozkatzeko orduan. Alabaina, baliteke Nicolas Sarkozyren Gobernuak bideratutako Lurraldeen Erreforma Legeak iragarri duen kantonamenduen maparen aldaketak hautesleen artean nahasketa sortu izana. Izan ere, orain arteko erreforma ez da batere argi agertua izan herritarren artean. Bistan da, boterea eta gobernua atxikitzen dituen eskuin baliabide guztiak ezarriko ditu bigarren itzulian, bigarren mailatzat jotzen dituen hauteskunde emaitzak orekatzeko. ■

**Baliteke Nicolas Sarkozyren Gobernuak bideratutako Lurraldeen Erreforma Legeak iragarri duen kantonamenduen maparen aldaketak hautesleen artean nahasketa sortu izana**



## Net Hurbil



Fukushimako zentral nuklearreko erreaktoreetako batean eztanda gertatu zen unea

# Energia atomikoak Japonia bigarrenenez hondoratu du

Alemaniak bezala Japoniak ere herritarrentzako lur gehiago behar zuela-eta ekin zion gerra inperialari 1940an. Bi bomba atomikorekin makurrarazi zuten. Gerra ondotik, lurrik ezean manufakturen produkzioan gailendu nahian, Japoniak atomo zibilera jo zuen, energia bila. Zentral atomikoa bigarrenengoz ari da inperio japoniarra eraisten.

PELLO ZUBIRIA

MARTXOAREN 11N HASI EGIN ZEN lurrikara itzela Japonian. Oraindik martxan dago. Lehenbizi lurrak egin zuen dardar, minutu gutxiren bueltan tsunamiak jipoitu zuen kostalde eta bien eraginez Fukushima Daichiiko zentral nuklearra krisian sartu zen. Ez da baretuko bi egunetan.

Eraikinek, batik bat hiri handietan, sasoi onez jasan zuten lurrikara. Itsasoak, aldiz, minutu gutxitan Japonia-ko ipar-ekialdeko kosta txirtxilatatu zuen, heriotza gehienak eraginez (21.000, desagertuak barne, martxoaren 21 arte). Fukushima zentralaren porrotak, berriz, atomo zibilaren segurtasunaren mitoa hondoratu du.

Tohoku lurrikarari 9. maila eman zaio Richter eskalan. 8tik gorakoak ezagutu ditu Japoniak 2007an, 2006an, 2003an, (1995ean Kobekoak, 6.434 heriotza eragin zituen 6,8koa izanik), 1968an, 1946an, 1933an, 1923an (100.000 baino gehiago hil), 1896an, 1891n, 1854an birritan...



## Erradioaktibitatea segurtasun eremutik kanpora ere zabaldu da.

Lurrikara ostiraleko 14:46ean gertatu zen. 15-30 minutu geroago heldu tsunamia. Larunbatean 15:36ean Fukushima sei erreaktoreetatik lehenak egin zuen eztanda. Teknikariek lehenbizikoz utzi zioten lurrin erradiaktiboari ihes egiten, erreaktoreetako presioa arintzeko. Ez zen azken aldia izanen. Igandean gobernuak zentraletik 20 kilometro arteko etxe guztiak hustuarazi zituen, 30 kilometro artekoie gomendatuz etxetik ez irtetea. Asteartetik aurrera, leherketa eta ihesak jarraian.

Zentraleraino kanpotik argindarririk ez iristeak eragin du krisia, honek ekarri duelako hozte sistema etetea. Eta hau edonon gerta daiteke, Bordele ondoko Blayaisen bezala Miranda ondoko Garoñan.

Zentral nuklearra esanda jendeak erreaktoreak ikusten ditugu. Fukus-

himak erakutsi digu horiek bezain arriskutsuak direla erregai usatuak dauzkaten biltegiak, urez betetako pizsinak, erreaktoreen alderantziz babes sendorik gabekoak.

Erregai atomikozko barrak berotzen joan dira. Leherketekin erreaktoreei estali babesgarria zulatu zaie eta pizsinei urak egin die ihes. Erradiaktibitatea hasi da ateratzen inguruko airera, zorura eta itsasora.

Motorretako batean uranioaz gain plutonioa dago, are arriskugarriagoa. Berriki eztabaida handia

**Fukushimako krisia hasi  
besterik ez da egin.**

**Martxoaren 12tik dakite  
hori askok munduan**

piztu zuen Japonian horren erabilera. Orain ikara.

Istripua maneiatzeko gizakiak lehenbiziko astean erakutsi duen ezintasuna patetikoa izan da. Heliokopteroz zentrala ureztatzea propaganda hutsa zen, sutan den etxeari katilu bat ur jaurtitzea. Zerbait larria pasatu da hainbeste ordu eta egunez bi urratsera daukaten itsasotik ura punpatu ezin izan dutenerako.

Zenbat erradioaktibitate isuri den ez da jakina. Larunbatean, 19, azaldu ziren lehen arrastoak 30 kilometroko segurtasun perimetrotik aparte. Inork ez du aipatu itsasoraino zenbat iritsi den.

Fukushimakoak dagoeneko gairiditu du AEBetako Three Mile Islandekoa larritasunean. Txernobylgoaren ondoren, bigarren bortitzena.

Txernobylen erreaktorea lehertu zen eta usinan bestelako materialak zeuden. Fukushima erreaktoreak ez dira aire librean lehertu... Baina Txernobylen erreaktore bakarra zen eta Fukushima sei daude elkarren ondoan.

Fukushimako zentralaren jabea Tokyo Electric Power Company (Tepco) multinazionala da, elektrikoetan munduko laugarrena, E.ON, Electricité De France (EDF) eta RWE alemanaren atzetik. Lehen egunetan Tepcoko ekipoak kudeatu zuen krisia.

Zentralean zeuden 800 teknikariak laster atera zituzten bertatik. 50 teknikari utzi zituzten. 150 gehitu dizkiete. Lanean metatu dezaketen erradiaktibitate kopurua %50 igo diete, ez da esan zein irizpiderekin.

# Iruñeko Planetarioa

Antso Ramirez kalea, z/g Iruñea

[www.pamplonetario.org](http://www.pamplonetario.org)



Topera iritsi dena beste batek ordezkatu behar du. Ez da esan aste betean zenbat pasatu diren Fukushima. Txernobylekoa egonkortzeko... 600.000 gizon erabili zuten.

Japoniatik iristen den informazioa ulertzeko, gogoratu II. Mundu Gerraz geroztikako larrialdirik handiena ari direla kudeatzen. Tepco, berriz, zentralaren jabea da eta istripu honengatik desagertu daiteke laster.

Tepco lehenago ere ezkutatu izan ditu bere nuklearren istripuak, famatua da gardentasunik ezagatik. Japoniako hedabide nagusiek oso kontrol zorrotza daukate energia gaiez.

Elektrizitate eta energiaren multinazionalak munduko konpainiarik handienetakoak dira. Haien *lobby* lanak sekulako eragina du komunikabide handietan. Hauen jabegoan ere sartuta daude.

Apuntatu joera hau: albiste txarrak egun bat-bi baino gehiagoko atzerapenez zabaldu dituzte, aldiz, espero diren albiste onak gertatu baino bat-bi egun lehenago.

Frantziako hedabideek eman duten informazioak eta espainolek emandakoak ez dute konparaziorik. Eskueran dituen telebistak bakarrik ikusita, Garoñatik hurbil bizi den Gasteizko batek baino askoz informazio hobe dauka Altzain bizi den zuberotarrak.

Alemanian eta Frantzian nuklearraren aurkako iritzia publikoa sendoa da. Informazio eta erabakiekin Angela Merkelek eta Nicolas Sarkozy aurrea hartu nahi izan diete ekologisten kritikei.

Informazio gutxiegi bezain erraz ito daiteke herritarra xehetasun gehiegi eta kontraesankorrez. Fukushima krisiaren biktimetako bat, berriro ere, informazioa izan da.

Energia nuklearra gerrarako tresna da. Bakerako eta ekonomiarako balizko helburuetarako usatutakoan ere, istripua gertatuz gero gerrako gaitzat artatu behar da.

Txernobyleko krisia kudeatzeko arduradunak esana: zentrala kudeatzen dutenak ez daude prestatuak horrelakoetarako, nazioarteko ekipo berezituua antolatu behar da istripuetarako. Eta Energia Atomi-



Fukushimako erreaktore bat kea dariola.

koaren Munduko Erakundea ere ezin liteke izan larrialdien kudeatzaile, enpresa handi horiexen esku dago eta.

Frantziako Gobernuak 1986an hiru hilabetez ezkutatu zien herritarrei Txernobyldik hodei erradioktibitateak heldu zitzaizela. Meteorologia zerbitzuaren arduraduna auzitara eramana daukate tiroideetako kantzerra garatu duten gaixo batzuek.

Lotsagarrikeria haren erreakzioz sortu zen CRII-RAD erakunde independentea, kutsadura erradiaktiboen jarraipen zehatza egiten duena. Arduradunak egunotan kexu azaldu dira antzekorik ez delako Japonian.

Albisteen lerro artean aztarnak irakurtzen ikasteko ariketa. Japonian erreaktore nuklear bat lehertu delako larunbateko siesta utzita Espainian Junta de Seguridad Nuclearreko buruzagiak bildu direla jakinarazten badute... zerbait larria den seinale.

Gaur 40 urte baino gutxiago duen euskalduna ez da oroitzen

**Albiste txarrak egun bat  
edo biko atzerapenez  
zabaldu dituzte, aldiz,  
albiste onak gertatu baino  
egun bat edo bi lehenago**

Txernobylez. Are gutxiago Lemoizez. 40 urtetik gorako askok, berriz, ahaztuak dituzte.

Azken aldian bazirudien damutu behar genuela Lemoiz usteltzen egoteagatik. Ariketa: hartu mapa eta ikusi inguruko 20 eta 30 kilometroen barruan zein hiritan zenbat jende hartzen duen.

Fukushimako krisia hasi besterik ez da egin. Martxoaren 12tik dakite hori askok munduan. Horrekin batera, zentral nuklearrei buruzko eztabaida berria lehen urratsetan dago. Hedabideak bezala politikariak eta unibertsitarioak ia guztiz harrapatuta zeuzkatenean, energiako korporazio handiei konplikatu egin zaie bizimodua.

Akordatzeko "Deba nuklearrik ez" hartaz? Historia ez da errepikatzen baina batzuetan errimatu egiten du.

**SOLOZABAL**

*Eskura ezazu teorikoa 5 egundant  
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-  
TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

[www.solozabalautoeskolak.es](http://www.solozabalautoeskolak.es)

# Fukushima, ziklo aldaketaren azken errematea

Gerra handi bat falta zuten herrialde garatuek hogeita hamar urteko garapena amaituz ziklo aldaketa osatzeko. 2007ko udatik hona dena sartu zitzaigun krisian: ingurumena, etxegintza, finantza sistema, zor publikoa, energia-iturriak... Inork espero gabeko jokalaria eman du ostikada. Naturak Japonia astindu eta munduaren martxa irauli du.

NORK ORDAINDUKO DITU KALTEAK? Fukushima zentral nuklearrarenak alegia. Galdera hori geratuko da, tamalez, martxoaren 11an lurrikararekin hasi, tsunamiarekin segi eta hondamendi nuklearrarekin borobildu zen Japoniako triskantzatik.

Tamalez, diogu, zeren eta naturak eragindako desastrearen biktimak eta kalteak azkar samar ahazten dira mundu osoan, salbu eta gertatu diren lekuan bertan. Gaur inor akordatzan ez da Banda Aceh-ko lurrikararekin hasitako maremoto basati haren ondorioez, ez bada urteurrena ospatzeko dokumentaletan. Ez da berdin ahaztuko Japoniako M-11.

Ez da inor gauza zehazteko, gutxi gora behera ere, Fukushima zentralaren porrotak zenbateko kalte ekonomikoak eragin dizkien Japoniari eta munduari. Txernobylek eragindako pikardiak hein handi batean nozitu eta beren gain hartu zituzten merkatu sistematik at bizi ziren ekonomiek eta haien kontabilitaterik izan baldin bada gehienak ordaindu gabe geratu dira. Aldiz, Fukushima-koak erakutsiko dituen zifrak errotze-koak izanen dira.

Ingurumenari egindako eraginak kontabilizatu behar direla diotenek, hau da, urteak daramatzatenek argudiatuz energia eta jarduera industrial asko errentagarritzat agertzen direla haien koste guztiak kontutan har-

tzen ez direlako, gizakiaren edo naturaren osasunari eragindako kalteak kanpoan uzten –kontabilitatetik “ahazten”– direlako, guzti horiei arrazoia zutela aitortzeko ordua ekarri du Fukushima triskantzak.

M-11 honen historia idatziko denean, garbi azalduko da energia atomikoaz zerbait dakiten guztiak berehala ohartu zirela Japoniako zentraletan gertatzen hasia zena. Herritarrei leku batzuetan, Japonian bertan edo Espainian, tantaka eman zaie informazioa, gero eta dosi bortitzagoetan. Frantzia eta Alemanian, ordea, biak izanik nuklear gehien dituztenetakoak, askoz lehengo esan zitzaion egia jendeari.

Fukushimako porrota humanitariora, sanitarioa eta ekologikoa da, baina horrez gain porrot ekonomiko izugarria da. Munduko ekonomia aurreratuak zitekeenik eta unerik konplikuenean harrapatu ditu.

Energia nuklearra piztaldi berria ari zen bizitzen martxoaren 10era arte. Munduko jardun ekonomikoan nagusi diren energia konpainiak murgilduta zeuden egunsenti nuklear horretan. Hona zergatia, motzean.

Kyoton ludia beroketa gutxitzeko erabakitako protokoloak karbono isurketak murriztea eskatzen zuten. *Peak Oil* fenomeno, bestalde, gaur denek hartzen dute aintzat, alegia, petrolioa gero eta urriagoa eta

Japoniako katastrofe hirukoitzaz plazaratu diren argazkien artetik bat xamurragoa hautatu nahi eta *Tokyo Ezine* blogari kendu diogu hau. Langileak bi haur ari dira aztertzen soinean erradioaktibitate arrastorik daramaten jakiteko. Lehen planoan umearen begirada berezia da, haserrearen eta “zertan ari zara?” galdetzen duenaren nahasketa dela esan liteke.



karuagoa izango denez haren ordainak garatu behar direla. Energia enpresen *lobby* lortzen ari zen nuklearra energia garbitzat pasatzea, kasik berriztagarritzat.

Txernobylekoaren ondoren nuklearrak auzitan baziren, azken urteotan *lobby*ek lortua zuten garaiaren handi bat: zaharkitutako zentralak martxan jarraitzea. Haizeak gogor jotzen zien alde. Ezer ez da berdin izango M-11tik aurrera.

## Atomoaren mito desintegratuak

Martxoaren 11 eta berehala Alemaniak zentral nuklear zaharrak presaka ixteari hauteskunde usaina hartu zaio. Botoek asko dezakete. Baina mantsoago bada ere, gainerako herrialde garatuak gobernua bata bestearen ondoren azterketa eta ikerketa berriak agintzen hasi dira. Kutsadura erradioaktiboari beldurra dio jendeak, horra datu garrantzitsuak. Baina hori baino eraginkorragoa da dirua, eta Fukushima agerian utzi du atomoak arrisku ekonomiko izugarria zeukala, zentralen eraikitzaile eta ustiatzaileek inoiz onartu ez zuten arren.

Fukushimakoak desintegratu duen beste gauza funtsezkoa agintariekiko sinesgarritasuna da. Patetiko da ikustea milioika herritarren bizia –japoniarrena bezala munduko beste anitzena– jokatzan zen manio-





Multinazional horiek ezkutuan edukitako informazio larri asko ere agerian utzi dituzte ezteandek. Adibide txiki bat aipatzeagatik, Fukushima erreaktoreen ontziek barruko edozein konbustio jasan ahal izango zutela argudiatu eta ondoren zartatzen hasi direla ikusi denean, orduan jakin dugu ontzi-azal horien ahultasun estrukturala 1972tik salata zegoela. Gisa berean, hogeitabost urtetan entzun gabeak ordu gutxitan ikasi ditu adi egon den herritarrak.

Ez da hilabete asko oraindik adituak disputan ari zirela ea Ipar aberatsa kolpatu zuen krisi ekonomiko itzelak V, U ala WW forma edukiko zuen, edo inkluso L tankera. Japoniako ikara hirukoitzak inkognita berriak piztu ditu.

Japoniak lurrikaragatik eta tsunamiagatik jasan dituen kalteak eramangarriak lirakeke, nahiz eta munduko ekonomiaren biziberritzeari mesede handirik egingo ez lietekeen. 150.000 milioi euroko kalteak aipatzen dituzte. Baina krisi nuklearra hasi baino ez da egin bere ondorioak erakusten. Lehenbiziko aldiz azalduko dira orain arte nuklearren hustiapen eta balantzeetatik kanpo geratzen ziren zifrak. Txernobyl inguruko baserrietan ez bezala, Ipar aberatseko hirietan kalte guztiak kontatzen dira... eta kobratu nahi izaten dira. Nuklearren arriskuak aseguratzea ezinezkoa zela jakina zen, baina orain bixtan geratu da..

Historia bukatu dela argudiatu baldin bazuen neoliberal probokatzailer batek, esan liteke Fukushima historia berri bati eman zaiola hasiera. Berria bai. Hobe? ■

brak eta operazioak enpresa pribatu gardentasunik gabeko batek kudeatzen dituela, aurretik istripu gehiago ezkutatu izanagatik zigortua egon denak, berak bakarrik ezagutzen dituen ahalbideekin. Txernobylekoan merkaturik eta inizatiba pribaturik gabeko sistema zaharkitu burokratizatu batek egin zuen porrot, hori bai, oinezko milaka herritarren sakrifizio heroikoa utzirik ordain epiko gisa. Fukushima porrot egin duena korporazioen sistema izan da.

Energia den gai estrategikoa, gizartearentzako hil ala bizikoa, korporazio gutxi batzuek daukate zentralizatua, egitura multinazional ilunetan. Teknologiaren sofistikazioa zentralizazio eta kontrol ekonomiko horren osagaietako bat da. Energia

berriztagarriak berak kasik beraiek monopolizatu dituzte. Eta inork ez daki agintzen duena ez nor den eta ez non dagoen. Aldiz, agintari politikoek eta hedabideen gain kontrol handia ezarri dute urteotan.

Fukushimako zentralaren jabea Tepco multinazionala da, eta Japoniako argindarraren zati handia kontrolatzeaz gain munduko beste leku askotakoaren jabe da. Energiaren egituraketa multinazional honengatik, Japoniako ezteandek gero ikarak beste edonon eragin dituzte. Barack Obama ari zela apustu egiten zentral nuklear berrien alde AEBen energia independentziaren izenean? Orain amerikarrek badakite Texasen bi zentral jaso nahi dituen Fukushima Tepco bera dela.





**ZINKUNEGI  
OPTIKA**  
Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
[info@zinkunegioptika.com](mailto:info@zinkunegioptika.com)  
[www.zinkunegioptika.com](http://www.zinkunegioptika.com)

zuri begira

## Ez dago hizkuntza zailik edo errazik

TXERRA RODRIGUEZEK bilketa interresgarria egin du Garaigoikoa blogean ([www.blogak.com/garaigoikoa](http://www.blogak.com/garaigoikoa)). Hizkuntza batzuk ikasteko besteak baino zailagoak edo errazagoak diren eztabaidari heldu dio eta hantemenka aurkitu dituen hausnarketak jaso ditu. Ezer baino lehen argi utzi du gai honi buruz berak duen iritzia: “Ez dago hizkuntza zailik, ezta errazik ere”. Besteak beste Urtxintxa Eskolak, HUHEZI fakultateak, [sustatu.com](http://sustatu.com)-ek, Xamar irakasleak eta Moreno Cabrera hizkuntzalari madrildarrak gai horretaz idatzitakoak jaso ditu.

## Aritu.eu

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUAK jarri du abian [aritu.eu](http://aritu.eu) webgunea. Euskaldunak sarri bizi ditu frustrazioak, egunerokoan euskaraz hitz egiten hasita. Euskaraz ulertu bai, baina hitz egiten ez duen jendea; jakin bai, baina hitz egiteko gogorik ez duena; ezer ulertzen ez duena; aurpegi txarra jartzen duena... Euskaldunak euskaraz egin nahi du, mutur beltzik ikusi beharrik gabe... Horrelako egoerak kudeatzeko baliabideak eskainiko ditu, [aritu.euk](http://aritu.euk). Kontu horietan aitzindari izan diren Ferran Suay eta Gema Sanguines psikologoek aholkularitza izan dute webgunea osatzeko.

## Ingelesa irakasteko zentroa Lekarozen

NAFARROAKO GOBERNUAK 3.000 metro koadroko eraikina prestatutako du Lekarozen irakasle, ikasle eta profesionalentzako murgilketa ikastaroak eskaintzeko. Umeentzako udalekuak ere antolatuko dituzte. Eraikinak ikasgelak, bulegoak eta logelak izango ditu. Obrak apirilean hasiko dituzte. Gobernuaren kalkuluen arabera, urtean 3.000 ikasle igaroko dira zentrotik.

## BAHEA

Xabier Kintanak Ustea ez da jakitea (II) izenburupean Euskaltzaindia: “Beste hizkuntza batzuetatik berba mailegatuak izateak, azken buruan, gure berbeta ere, zentzurik hobereanean, mintzaira ‘normala’ dela esan nahi du, hots, mundu honetakoa, oraindik puristaren batek bestela pentsatu arren”.

Asier Basurtok aisia.net webgunean esanak: “Muguruza eta konpainia izan ziren euskaraz Ameriketako beltzak bezala kantatzeko lehenengoak. Ondoren, 2000ko hamarkada hasierarekin Selektah mitikoak ezagutu genituen. Orain, banaka-banaka gero eta kalekume gehiago agertzen zaizkigu euskaraz errimatzen: konplexurik gabe, harrotasunez”.

Miren Azkaratek Deia egunkarian esanak: “Badakit ikerlanek oihartzuna izan dezaten nazioarteko kongresuetan aurkezten direla, nazioarteko aldizkarietan argitaratzen direla, ingelesa nagusitu zaigula ia arlo guztietan. Inork esan beharrik gabe ohartzen gara horretaz eta ohituak gaude ingelesez ere argitaratzen. Baina tesinak, gradu eta graduondo amaierako lanak, doktore-tesiak euskaraz egitea badugu helburu, zergatik ez aintzat hartu eta aitortu lan berezia egin behar duela horrelako lanen zuzendaritza hartzen duen irakasleak?”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### Hondamendi nuklearra: egia jakitea

Martxoaren 11ko seismoak eta ondorengo tsunamiak kalteturiko Fukushima zentral nuklearren egoera bizkor ari da aldatzen. Egutero harritzen gaituzte albiste berriekin, eta horien benetako eragina zein den ez dakigu, ezta hondamendi nuklear horren sorburua eta ondorioak zein diren ere. Nahikoa da esatea, 2 eta 4 errektoreetan izandako leherketek material erradioaktiboa isuri zutela kanpora, eta laino hori ez dela soilik Tokion nabaritu, baita kontinente asiarretik urrunagoko lekuetan ere. Gertakariaren larritasuna lainoa sakabanatu —eta erradioaktibitatea murriztu— ala horrela mantentzearen baitan dago. Azkeneko aukerak herritarren osasunari gehiago eragingo lioke, osasunarentzako arriskuak bistakoak dira: azaleko erredura eta alterazioak, kataratak eta agian itsutasuna, hezur muinean lesioak, abortuak eta malformazioak izateko aukera, globulu zurien eta plaketen linfomak, minbizia, eta abar.

Beharrezkoa da autoritateek, ez soilik japoniarrek, baita munduko erakundeek eta batez ere aditu independenteek ere, egia esatea gertatu denari buruz, eta azaltzea zein izango diren hondamendiaren —nuklearra izan edo bestela izan— ondorio zehatzak japoniarrentzat eta gizateriarentzat, bai berehalakoak, eta baita epe motzekoak, erdikoak eta luzera begirakoak ere. Nuklearren aldeko lobbyek negozioa egiten segitu nahi dute, hala nola beren terminal mediatikoei eta gobernuek ere, eta jadanik ari dira ezbeharrari garrantzia kentzen eta soluzioa mugatzen zentral nuklearren segurtasuna handitzera. Zer nahi dugu, seguruagoa baina gaur egun garestiagoa den energia berriztagarria, edo merkeagoa baina arriskutsuagoa den energia nuklearra? Herrialde bakoitzak, Euskal Herriak ere bai, erreferendumean erabaki beharko luke.

Juan Mari Arregi



## Petrolio gosea demokraziaz mozorrotzen denean

**PETROLIOA** Libiari egindako erasoaren muinean dagoela pentsatzeko arrazoiak ugariak dira, erasoaren arrazoi nagusia zibilen defentsa dela pentsatzeko baino askoz gehiago. NBEko 1973 ebazpena, zibilen babesean oinarritzen da, baina orain arte Frantziak, Erresuma Batuak eta AEBek gidatutako koalizioaren armek ez dela hala erakusten dute, Gaddafiren kontrolpeko era guztietako azpiegiturak suntsitzen ari dira eta. Horren ondorioz, Gaddafiren aurkako operazioari babesa eman zion Liga Arabiarrak adibidez, eraso- en izaerarekiko desadostasuna erakutsi du.

Libiako erregimenaren erorketa helburu, eta Irak eta Afganistango inbasio zuzenen akats eta arriskuetatik ikasita, Mendebaldeko indarrek Libiako azpiegiturak gogor kolpatu eta oposizio armatua indartzea izango dute helburu. Hasiera ezagutzen dugu jada, baina eraso militar hauen esperientziak dioskunez, amaiera aurreikustea oso bestelako kontua da. Beste hainbatetan ere Mendebaldeak bere interesak babestu ditu, baina bertako herritarren egoera okertuz (Irak, Afganistan, Somalia...).

Petrolio da lehena, ez herritarak. Marokon (bertakoei eta sahararrekin), Aljerian, Yemenen, Barhein-en eta Palestinan, besteak beste, zibilen aurkako errepresioa oso gogorra da, baina ez dira gisa horretako neurriak hartzen. Berdin munduko beste hainbat lekutan, hasi Txinatik eta Honduraseraino. Mendebaldeak bere interesen alde egiten du, ez diktadurek zapal dutako herritarren alde.

Libiako petrolioaren %75 Europako Batasunera doa: Italiara %32, Alemaniara %13,4, Frantziara %10, Espainiara %8,6... Eta munduko petrolio erreserben zerrendan, Libia 9.ena da. Une honetan petrolioaren prezioan oso garrantzitsua da eta

petrolio gero eta eskasago izango den munduan estrategikoa.

**AITORTU** behar da, alabaina, eraso militar honek Bengaziko matxintuak eta zibilak babestu egin dituela. Zantzu guztien arabera, eta ikusirik Gaddafiren armada nola ari zen irabazten gerra, badira arrazoi asko pentsatzeko Bengazin mendeku odoltsua gauzatuko zuela. Benetako helburua balizko sarraskia eragozteko balitz, ordea, nahikoa izan zitekeen Bengaziko Gaddafiren indarrak geldiaraztea eta gainerakoan indar diplomatikoa erabiltzea. Errepresio basatiatarako lekuri ez dagoela argi utzita, ondorengo guztia libiarrei dagokie konpontzea, eta NBEk horretarako laguntza guztia eskaini beharko luke. Berdin beste herrialde arabiarretan ere.

Ez dago argi orain zer gerta litekeen, baina epe laburrean bi eszenatoki bederen aurreikusi litezke. Bata, nazioarteko erasoak aurrera jarraitzea eta Gaddafiren erregimena barrutik ere lehertzea (desertzioak...). Beste eszenatokia luzeagorako litzateke: Libia bitan zatitua geratzen da, erregimena mendebaldean eta matxintuak ekialdean, eta gerra luzearen ondoren eta Mendebaldeko potentzien sostenguarekin, matxinatuek irabaztea. Era batera ala bestera, argi dago Gaddafirenak egin duela.

**Errepresio basatiatarako lekuri ez dagoela argi utzita, ondorengo guztia libiarrei dagokie konpontzea, eta NBEk horretarako laguntza guztia eskaini beharko luke. Berdin beste herrialde arabiarretan ere.**

**HORI BAI,** beste behin ere, argi geratu da Mendebaldeko herrialde askoren hipokrisia. Azken urteotan denok ikusi dugu telebista eta argazkietan nola ibili den Libiako koronela hiriburuz hiriburu Italian, Frantzian, Espainian... 2005etik 2009ra Alemaniak ia 86 milioi euro saldu zizkion Libiari material militarrean; oraingo erasoekin Frantziak berak Libiari saldutako Mirage hegazkinak lurreratuko ditu agian; eta Espainiak otsailaren bukaeran agindu zuen etetea Libiara saltzen ari zen material militarra...

Herrialde arabiarretako matxindaren funtsa, beren diktadurekiko duten jasanezintasunean dago; pobrezia eta beste hainbat eragile leherkari izan dira. Urtea joan urtea etorri —eta petrolio eta Israelekiko babesa beti muinean—, diktadura horiek Mendebaldeko sostengua izan dute eta honek bere kasara maneiatu ditu, orain Saddam Hussein Iran-en aurka erabiliz, edo gero Gaddafi Al Kaedaren aurka. Lehen kolonialismotik, gero postkolonialismoz jantzita.

Benetako helburua herrien garapena, zibilen babesa eta demokrazia baldin bada, testuinguru horretan ez da lekuri Mendebaldeko politika paratxutistentzat. Erantzun bakar eta sinplistik ez duten egoera konplexuak daude matxinada arabiarren baitan. NBEk diktadura ororen aurka ari diren herritarrek sostengatu beharko litzuke, beti ere zenbait printzipio nagusi eginez: herritarren interesa, herrialdeen soberania eta indar militarra azken baliabidea dela. Baina hori ez da samurra izango, batetik Mendebaldeko herrialde nagusiek oraindik orain beren interesak lehenesten dituztelako; eta bestetik, eredu izateko etxetik hasi behar delako. Esaterako, noizko NBEko erreforma, herrialde nagusien beto eskubidearekin amaitzeko?

Kike Diez de Ultzurrun Sagalá

## Udaberririk ez

**E**usko Alkartasunak munta handiko akordio bat hartu zuen Gasteizko Legebiltzarrean, 2009ko ekainean; hots, aurrerantzean, kontu politiko mamitsu orori buruzko erabakiak exekutiba nazionalak hartuko zituen, hautagaitza eta zerrendaburu guztien gaineko erabakiak barne. Horrek eskumenik gabe utzi zuen Nafarroako EA bere estrategia markatzeko. Lizarrako EAK, aho batez, osotasuneko zuzenketa bat aurkeztu zuen biltzarrean, bai eta NaBairen aldeko apustu sendoa eskatu ere; biltzarrak, ordea, eskaerak atzera bota zituen. Nafar bat mintzatu zen Lizarrako EAKideen eskarien aurka: Koldo Amezketak. Azken finean, hura beste aurre-rapauso bat izan zen, bi urte lehenago EAren eta Ezker Abertzale ilegalizatuaren artean urratzen hasitako bidean. Gero, bi indar politikoen arteko *Lortu*



JSU SANTESTEBAN

kin; jende horri NaBai barruan bidea erraztu ordez, jende horrentzako toki zabala eta eroso bilatu ordez, giroa are gehiago tenkatu eta Nafarroa Bai Nafarroako EAren oinarri sozialik gabe utzi dute; oraingoz, behintzat. Batzarrerik gabe, NaBai jarrai zezakeen, baina ez da inola ere gauza bera izanen, EAko jendearen ekarria biltzen ez badute.

Horra, beraz, zeinen mingots dauden gauzak Nafarroako Eusko Alkartasunean eta, zeinen garratz ere, are garratzago ez errateagatik, Nafarroa Bai, noiz eta bi hila-bete doi gelditzen direnean udaberriko hauteskundeetarako. Hori gutxi delakoan, gainera, batzuk eta besteak elkarri mokoka ari dira, egunero, tai gabe, zeinek handiagoa bota, eta ez dirudi atertzeko asmotan dabil-tzanik. Egia erran, hein batean, horrela eman dituzte 2007tik hona joan diren urte



Zuzendaritza guztiek erakutsi dute antzeko jokabidea; Aralarrek, Eusko Alkartasunak, EAJk eta Batzarrek. NaBaitik kanpoko negu-giroak atxikiarazi ditu koalizio barneko supazter goxoaren arrimuan, suak (eta boto-emileen eraman handiak) betirako iraunen zuelakoan. Ahaztu dira, ordea, sua zirikatzeaz eta hauspotzeaz, eta sua itzali da; edo, hobe erran, itzali egin dute, jakin gabe, mendi gaineko elurrak gesaltzen hasiak badira ere, primaderarik ez dela Nafarroarat heldu; ezta helduko ere





*Arte* agiria etorri zen, eta horrekin batera, jendaurrean eta alderdi barruan azaldu ez duten akordio bat: horren arabera, ez indar politiko batek, ez besteak, ez zuten ezein talderekin inolako hauteskunde-koalizioirik eginen, akordio-kidearen oniritzi-rik gabe. Hortik etorri zen Pello Urizarrek, Batasunak agindurik, Uxue Barkosi ezarritako betoa, handik bi egunera guztiz kontrakoa erran bazuen ere. Une hartan, bazirudien Nafarroako EAK ia bere osoan utziko zuela alderdia, Nafarroa Bai jarraitzeko. Egia da kide frankok alde egin dutela EAtik eta zati-keta familietaraino bertaraino iritsi dela. Alderdi barruan jarraitzen duten zenbaitek, gainera, ez dute inola ere Batasuneko jendearekin batera joan nahi, ez baita preseski goxoa izan urtetan haiengandik jaso duten tratua; urte sail luzeko mespretxuak eta jazarpenak ez baitira lau egunetan konpon-tzen. Erran bezala, bazirudien 1983an EAJ-tik kanporatutako jende horrek berak bide berbera hartuko zuela oraingoan ere bai. Aralarrek eta EAJk, ordea, oso gaizki jokatuko dute Eusko Alkartasuneko nafar kidee-

guztiak, eta zuzendaritza guztiek erakutsi dute antzeko jokabidea; Aralarrek, Eusko Alkartasunak, EAJk eta Batzarrek. NaBaitik kanpoko negu-giroak atxikiarazi ditu koalizio barneko supazter goxoaren arri-muan, suak (eta boto-emileen eraman handiak) betirako iraunen zuelakoan. Ahaztu dira, ordea, sua zirikatzeaz eta hauspotzeaz, eta sua itzali da; edo, hobe erran, itzali egin dute, jakin gabe, mendi gaineko elurrak gesaltzen hasiak badira ere, primaderarik ez dela Nafarroarat heldu; ezta helduko ere. ■



ASTE HONETAKO

# zozketa



## Urbano Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Abuztuaren 31, 17  
Donostia GIPUZKOA

[www.restauranteurbano.com](http://www.restauranteurbano.com)

1



## Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat  
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1  
Donostia GIPUZKOA

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

2



## Gipuzkoa Indoor Karting

3 harpidedunentzat  
bina sarrera

Iparraldeko autobidea, 433. irteera  
Tolosa GIPUZKOA

[www.indoorkartinggipuzkoa.com](http://www.indoorkartinggipuzkoa.com)

3



## Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat  
bina sarrera

de la Cuesta, 7  
Alzuza NAFARROA

[www.museooteliza.org](http://www.museooteliza.org)

4



## Ziztadak

2 mahai jolas opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2268. Argia)

### LAIA

- Edurne San Martin Larrañaga (Eibar)

### EUSKAL MUSEOA

- Jose Ignacio Villar Saez (Bilbo)
- Idoia Ormaetxea Ireta (Durango)
- Maria Jose Etxaide Ibarguren (Bergara)

### IBERNALO

- Elixabete Perez Gaztelu (Oiartzun)

### AQUARIUM

- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
- Fernando Ramirez Sanchez-paniagua (Bilbo)
- Karmen Alvarez Yagüe (Donostia)
- Maritxu Etxezabal Larrañaga (Azpeitia)

### KIROLAZ BADAKIT

- Xabier Iriarte Ansorena (Hernani)
- Iker Urkia Martinez De Lahidalga (Aretxabaleta)


\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com) • [www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)





**Garaiko errealitatean  
kokatuko zaituen denboraren orratza**

Oparitu **Argia** harpidetza  
*independentzia astero ikusten da*